

**Miller-en III. motako hortzoiaren atzera-egite
anizkoitzen tratamenduan VISTA aldatua (m-VISTA)
teknika koroalderantz birjarritako zintzilikarioaren (KBZ)
aurreko ikerketa konparatiboa: **Ausazko entsegu klinikoa****

Estudio comparativo sobre la técnica VISTA modificada
(m-VISTA) frente al colgajo de avance coronal (CAF) en
el tratamiento de las recesiones múltiples Miller clase III:
Ensayo clínico aleatorizado

Aitziber Fernández Jiménez / 2021

Zuzendariak / Directores:
Jose Manuel Aguirre Urizar
Luis Antonio Aguirre Zorzano

(c)2021 AITZIBER FERNANDEZ JIMENEZ



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

Elebidun Tesia / Tesis Bilingüe

Euskara/Euskera 5 or./pág.

Gaztelania/Español 95 or./pág.

**esker
ona**



Nire gurasoei, Josu eta Uxuriri, eta Nerea eta Daneli

Dr. Luis Antonio Aguirre Zorzano irakasleari, doktorego tesi honen zuzendaria, bere ahalegin eta dedikazio guztiagatik, eta beti hor egoteagatik, bai arlo profesionalean bai pertsonalean jarraitu beharreko erreferentea izanik.

Dr. Jose Manuel Aguirre Urizar irakasleari, doktorego tesi honen zuzendaria, kutsatzen duen gogo eta dedikazio nekaezinagatik, lanaren garapenean euskarri handia izateaz gain.

Eduardo Ginestal Gómez doktoreari, aho-aurpegi-ko mina den prozesu konplexuari buruz sortzen den edozein zalantza argitzeko prest eta adeitsu egoteagatik.

Xabier Marichalar Mendia doktoreari, datu estatistikoak aztertzean beraren laguntza nekaezinagatik eta pazientziarengatik.

Ana María García De La Fuente eta Ruth Estefanía Fresco doktoreei, euren babesik, animorik eta baldintzarik gabeko laguntzarik gabe hau ezinezkoa zatekeelako. Inoiz ez naiz hain eskertuta egongo zuen lankide izateagatik, behar duzuenako nauzue.

Cristina García Uragari, Estomatologia II Saileko idazkariari, egindako lan handiagatik, laguntzeko pres-

tutasunarengatik eta administrazio-lan eraginkorrarengatik.

UPV/EHU-ko Odontologia Klinika Zerbitzuko, Trivelli Hortz-Klinikako, Eibar Hortz-Klinikako eta Maxilaris Klinikako talde osoari, emandako ulermen eta laguntza guztiarengatik.

Periodontzia eta Osteointegratioko Master-eko lankide eta ikasleei, eta bereziki nire sufrimendu lagun diren Ruthi, Beleni, Elenari eta Olatzi, gauzak beste ikuspuntu batetik ikusten irakatsi didatenei.

Nire lagun guztiei, batzuetan ezinezkoa zirudienean burua garbitzeagatik.

Josuri, bere pazientzia eta ulermen handiarengatik, bidean guztiari aurre egiten laguntzen duen baldintzarik gabeko maitasunaz gain.

Nire bi maitasunei, Daneli eta Uxuriri, edonor kontsolatzen baitute irribarre soil batekin.

Eta azkenik, nire aingeru Anari, bere etengabeko laguntzarik gabe hau ilusio hutsa zatekeelako. Nire aitari, Juanjori, iraupenaren eta lan gogorraren irakaskuntzagatik, eta nire ahizpari, Nereari, bizitzako une guztietan nire konfidente eta laguntzaile izateagatik.

Aitziber

1. Sarrera	15
1.1. Hipotesia	18
1.2. Helburuak	18
2. Aurrekariak	21
2.1. Hortzoiaren atzera-egitea	23
2.1.1. Epidemiologia	23
2.1.2. Etiopatogenia	23
2.1.3. Erro-estalduraren sailkapenak eta pronostikoa	24
2.2. Miller-en III. motako hortzoiaren atzera-egitea	25
2.2.1. Klinika	25
2.2.2. Diagnostikoa	25
2.2.2.1. Pazientearen historia	25
2.2.2.2. Zeinu eta sintoma periodontalen balorazioa	26
2.2.2.3. Aho-barrunbearen azterketa gehigarria	28
2.2.2.4. Diagnostiko periodontala	28
2.2.3. Hortzoiaren atzera-egiteen pronostikoa eta tratamendu-plana	28
2.2.3.1. Hortzoiaren atzera-egitearen mailan	29
2.2.3.2. Pazientearen mailan	29
2.2.3.3. Teknika kirurgikoaren mailan	30
2.3. Miller-en III. motako edo Cairo-ren RT2-ko hortzoiaren atzera-egiteen tratamenduaren berrikusketa sistematikoa	30
3. Pazienteak, materiala eta metodoak	33
3.1. Azterketa-taldea	35
3.2. Protokoloa eta datu-bilketa	36
3.2.1. Erabili beharreko teknikaren ausazkotzea	36
3.2.2. Ebakuntza definitzea	36
3.2.2.1. Teknika kirurgikoa	36
3.2.2.2. Protokolo poskirurgikoa	39
3.2.3. Erregistratu ziren aldagai klinikoak	39
3.2.4. Aldagai erradiologikoa (hezur-maila erradiologikoa)	41
3.2.5. Kronograma	41
3.3. Datuen azterketa estatistikoa	42
4. Emaitzak	47
4.1. Estatistika deskribatzailea	49



4.1.1. Tratutako pazienteen ezaugarriak	49
4.1.2. Tratutako hortzoiaren atzera-egiteen ezaugarriak	50
4.1.3. Ezaugarri intrakirurgikoak	50
4.2. Estatistika analitikoak	50
4.2.1. Lehen mailako erantzun aldagaia: Erro-estalduraren batez besteko ehunekoa (EE %)	50
4.2.2. Bigarren mailako erantzun aldagaiak	51
4.2.2.1. Erro-estaldura osoaren batez besteko ehunekoa (EEO %)	51
4.2.2.2. Intertzio-maila kinikoa (IMK)	51
4.2.2.3. Hortzoiaren atzera-egitearen zabalera (HAEZ)	51
4.2.2.4. Hortzoi keratinizatuaren zabalera (HKZ)	51
4.2.2.5. Ukipen-puntutik hortz-arteke papilarainoko distantzia (UP-HP)	51
4.2.2.6. Plaka- eta odoltze-indizeak (PI / OI) zundaketan	52
4.2.2.7. Gertakari poskirurgikoak (GPK)	52
4.2.2.8. "UPV/EHU pain diary" minaren egunkariaren bidez jasotako min poskirurgikoa eta beste aldagai batzuekin izan dezakeen erlazioa	52
4.2.2.9. Emaiza estetikoarekiko gogobetetze-maila	53
5. Eztabaida	55
5.1. Aztertutako biztanleriaren ezaugarriei dagokienez	57
5.2. Tratutako atzera-egiteen ezaugarriei dagokienez	58
5.3. Erabilitako teknika kirurgikoei dagokienez	59
5.4. Lorturiko erro-estalduraren batez besteko ehunekoari (EE %) dagokionez	60
5.5. Lorturiko batez besteko erro-estaldura osoaren ehunekoari (EEO %) dagokionez	61
5.6. Gainerako parámetro kliniko periodontaletan lortutako aldaketei dagokienez	62
5.7. Pazienteen esperientzia mingarriari dagokionez	63
5.8. Pazienteen balorazio estetikoari dagokionez	64
6. Ikerketaren mugak	67
7. Ondorioak	71
8. I. eranskina: Aurrekariaren taulak (1.-3. taulak)	75
9. II. eranskina: Ikerketako berrikusketa sistematikoaren taulak (4., 5., 12.-14. taulak)	79
10. III. eranskina: Ikerketaren emaitzen taulak (6.-11. taulak)	87
11. Bibliografia	185

laburdurak

Dra.
Aas.
Aine.
Tto.
...

AAP: "Academia Americana de Periodoncia"; Amerikako Periodontzia Akademia

AERSA: "Avascular exposed root surface area"; Gainazalaren azalera abaskularra

CAMT: "Coronally advanced modified tunnel technique"; Koroalderantz aurreratutako tunek teknika aldatua

CEISH: "Comité de ética para la investigación con seres humanos"; Gizakiekin ikertzeko etika batzordea

DE: Desbideratze estandarra

EDTA: "Ethylenediaminetetraacetic acid"; Azido etilendiaminotetraacetikoa

EEO: Erro-estaldura osoa

EEO %: Erro-estaldura osoaren batez besteko ehunekoa

EE %: Erro-estalduraren batez besteko ehunekoa

%95-eko KT: % 95-eko konfidantza tartea

EKM: Ehun konektibozko mentua

e-MCTG: "Expanded mesh connective tissue graft"; Sare hedatuaren prozedura

EMD: "Enamel matrix derivative"; Esmaltetik eratorritako matrizea

GPK: Gertakari poskirurgikoak

HAE: Hotzoiaren atzea-egitea

HAEZ: Hortzoiaren atzera-egitearen zabalera

HKZ: Hortzoi keratinizatuaren zabalera

HKZa: Hortzoi keratinizatuaren zabalaren aldaketa

HMRx: Hezur-maila erradiologikoa

IEA: Ikuste-eskala analogikoa

IL: Idun-lerroa

IMK: Intsertzio-maila klinikoa

IMKa: Intsertzio-maila klinikoaren aldaketa

k: Kontrol Taldea

KBZ: Koroalderantz birjarritako zintzilikarioa

LLEK: Lepoko lesio ez kariogenikoak

Mi: Minaren intentsitatea

Mir: Minaren iraupena

m-VISTA : "Modified vestibular incision subperiosteal tunnel access"; Masail-aldeko ebakidura sarbide baten bidezko tunel subperiostiko teknika aldatua

OI: Odoltze-indizea

Ola: Odoltze-indizearen aldaketa

OZ: Odoltzea zundatzean

PI: Plaka-indizea

Pla: Plaka-indizearen aldaketa

RT1: "Cairo's type 1 recession"; Cairo-ren 1 motako atzera-egitea

RT2: "Cairo's type 2 recession"; Cairo-ren 2 motako atzera-egitea

RT3: "Cairo's type 3 recession"; Cairo-ren 3 motako atzera-egitea

SEPA: "Sociedad Española de Periodoncia y Osteointegración"; Periodontzia eta Osteointegratioko Espainiako Elkarte

SZG: Sentsibilizazio zentraleko galdetegia

t: Test Taldea

TAEKop: Tratatu beharreko atzera-egiteen kopurua

TAEKok: Tratatu beharreko atzera-egiteen kokapena

UP-HP: Ukipen-puntutik hortz-artereko papilarainoko distantzia

UP-HPa: Ukipen-puntutik hortz-artereko papilarainoko distantziaren aldaketa

zk.: Zenbatekoa

ZS: Zundaketa sakonera

TT: Tunel teknika

UPV/EHU: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

VISTA: "Vestibular incision subperiosteal tunnel access"; Masail-aldeko ebakidura sarbide baten bidezko tunel subperiostiko teknika

sarrera



Hortzoiaren atzera-egitea, ohi-ehun marjinalaren idun-lerrotik erpineranzko desplazamendua bezala definitzen da, sustrai-gainazalaren esposizioarekin^{1,2}. Periodontitisa, munduko seigarren gaixotasunik prebalenteena da³, eta hortzoiaren atzera-egitea, gaixotasunak txertatzeko ehunetan eragiten duen intsertzio periodontalaren galerarekin lotuta dagoen ohiko zeinua da. Hortzoiaren atzera-egite mota hau, Miller-en III. mota⁴ edo Cairo-ren RT2-a⁵ bezala sailkatzen da.

Aurrera egiten duten atzera-egiteetan eta, batzuetan, arrazoi estetikoekin lotuta, dentinaren hipersentiberatasuna eta/edo erro-txantxarrak edo lepoko lesio ez kariogenikoak daudenean, baldintza muko-gingibal honen tratamendua gomendatua dago.

Lesio horien tratamendu zuzentzailea, kirurgia plastiko periodontalaren bidez egin aurretik, pazientearen osasun periodontalera eramango da, eta alde zurreko faktore hartaratzailak aldatuko dira, aho-hortzen higie-ne-ohiturak barne, beharrezkoa izanez gero.

Urteetan zehar hainbat fokuratze kirurgiko egin dira, zeinen helburu nagusia erro-estaldura osoa (EEO) lortzea izan den, hortzoiaren atzera-egiteen tratamenduan arrakasta-adierazle onena bezala onartua izan dena⁶. Hala ere, EEO lortzea ez da beti posible izaten, tratamendu mota horretarako mesedegarrienak diren atzera-egiteetan ere⁷. Horregatik, atzera-egitearen batez besteko estaldura bezalako beste parametro batzuk datu fidagarriak izan daitezke teknika horien eragikortasuna baloratzeke⁸, izan ere, gutxienez % 80-ko batez besteko estaldura arrakastatzat har bailiteke⁹, batez ere atzera-egite mota hauetan. Gainera, ikerketa askok^{10, 11} pazientearen iritzian oinarritutako aldagaiak ere aztertu behar direla azpimarratzen dute, erro-estaldurako prozeduren arrakasta zehazterakoan informazio garrantzitsua emango digutenak.

Miller-en III. motako edo RT2-ko hortzoiaren atzera-egiteen tratamendua erronka handia da, oraindik ere, klinikoarentzat. Koroalderantz birjarritako zintzilikarioa (KBZ)¹² urteetan zehar atzera-egite hauen tratamenduan arrakastaz erabili den arren, eremu hartzailean trauma murrizteko eta baskularizazioa handitzeko teknika berrien aplikazioa iradoki da¹³ eta, horrela, emaitza kliniko hobekak lortzeko. Prozedura kirurgiko horietako bat masail-aldeko ebakidura sarbide baten bidezko tunel subperioestiko teknika aldatua da, bere m-VISTA akronimoagatik ezaguna,

bere ingelesezko adieratik datorrena “*modified vestibular incision subperiosteal tunnel access*”¹⁴. Erabiltzen den teknika edozein dela eta, gaur egun, erro-estaldura prozeduretan¹⁵, ehun konektibozko mentua (EKM) hautatuko edo “gold standard” materiala kontsideratzen da.

Amerikako Periodontzia Akademiaren (AAP) 2015-eko azken Birsortzeko Workshop-ean⁷, erro-estaldura prozeduretan, etorkizuneko ikerketarako lehentasunetako bat, ohantze hartzailearen prestaketarako teknika kirurgikoak alderatzea izango zela ezarri zen.

1.1. Hipotesia

Ikerketa honetan planteatutako hipotesia, VISTA aldatua (m-VISTA)¹⁴ teknikarekin, ehun konektibozko mentu (EKM) batekin konbinatuta, erro-estalduraren emaitza kliniko hobekak lortuko dira Miller-en III. motako atzera-egite anizkoitzetan, koroalderantz birjarritako zintzilarioarekin (KBZ)¹², EKM batekin konbinatuta, baino, izan da.

1.2. Helburuak


Proiektu honen helburu nagusia, Miller-en III. motako hortzoiaren atzera-egiteen tratamenduan m-VISTA teknikaren¹⁴ bidez, EKM batekin konbinatuta, lortzen den erro-estalduraren batez besteko ehunekoa (EE %) handiagoa den, koroalderantz birjarritako zintzilarioaren (KBZ) kontrol teknikaren¹² aurrean lortzen dena baino, EKM batekin batera, baloratzea izan da.

Hauek izan dira bigarren mailako helburuak:

- a. Tratamenduaren osteko erro-estaldura osoaren ehuneko baloratzea.
- b. Ehun bigunetan gertaturiko aldaketak behatzea, honako hauei dagokienez:
 1. Intsertzio-maila klinikoa.
 2. Hortzoi keratinizatuaren zabalera.
 3. Ukipeen-puntutik hortz-arteko papilarainoko distantzia.
 4. Plaka- eta odoltze-indizeak zundaketan.
- c. Hortzoiaren atzera-egiteen zabalaren aldaketak baloratzea.

- d. Azal daitezkeen gertakari poskirurgikoak jasotzea.
- e. Pazientearen pertzepzioak aztertzea, honako hauei dagokienez:
 1. Min poskirurgikoa.
 2. Emaitza estetikoarekiko gogobetetze-maila.

aurrekariak



2.1. Hortzoiaren atzera-egitea

2.1.1. Epidemiologia

Gaur egun, hortzoiaren atzera-egiteen prebalentziak gora egin du hainbat faktoreren ondorioz, hala nola bizi-itxaropenaren igoeraren eta kultura odontologiko handiagoaren eraginez, hortz gehiago mantentzean isaltzen dena. Adina, per se, periodontitisaren faktore etiologikoa ez bada ere, bizitzan zehar jasan ahal izan diren periodontoaren hanturazko gertakarien kopurua handiagoa da, eta horrek baldintzatzen du helduengan periodontitisak duen egungo intzidentzia handia¹⁶ eta, ondorioz, patologia horri lotutako atzera-egiteen agertzea.

Bestalde, pazienteen itxaropen estetikoek gora egin dute azken hamarkadetan, eta Periodontziaren Europako Federazioaren Delphi azterketaren¹⁷ iragarpenak betetzen ari dira, horrelako prozedura kirurgikoak oso demandatuak izaten ari baitira.

Hortzoiaren atzera-egiteen prebalentzia orokorren heina zabala da, % 18-tik¹⁸ % 91,60-ra¹⁹ artekoa, aztertutako biztanleriaren aho-higienearen estandarra edozein dela ere (1. taula). Gainera, adinak gora egin ahala hortzoiaren atzera-egiteak nabarmen areagotzen dira, 50 urtetik gorako ia paziente guztietan agertzen direlarik (1. taula). Erasandako hortzei eta gainazalei dagokienez, baraileko ebakortzak, goiko masailezurrek lehenengo aurreko haginak eta haginak, eta masail-aldeko aurpegiak nabarmentzen dira (1. taula).

2.1.2. Etiopatogenia

Hortzoiaren atzera-egiteen etiopatogenia azaltzeko, 70-eko hamarkadan bi teoria sortu ziren^{20,21}. Alde batetik, Goldman eta Cohen-en²¹ hanturaren teoria, non biotipo periodontal argal baten gaineko hantura errepikakor batek hortzoiaren atzera-egitea eragingo zuela aldarrikatzen zuena, eta bestetik, Gartrell eta Mathew-sen²⁰ teoria traumatikoa, non eskuilatze traumatikoa hortzoiaren atzera-egitearen faktore etiologikoa izango zena.

Gaur egun, hortzoiaren atzera-egitea bat ager da-

din, aldi berean bi faktore-mota elkartu behar dira, hartaratzailerak eta eragileak bezala sailkatu direnak.

Hortzoiaren atzera-egitearekin lotutako faktore hartaratzailerak²² biotipo periodontal argala duten pazienteetan nagusiki agertzen direnak izango lirateke²³, hala nola: hortzoi keratinizatu estuaren presentzia, hortzoi lodiera finekoa, hezur kortikal finekoa, dehiszentziak eta fenestrazioak, hortz-malposizioekin batera, disarmonia dento-eskeletikoa²⁴. Ebidentzia zientifiko txikiagoarekin, aho-higiene egokia gauzatzea zaildu lezaketenak bilduko lirateke, hala nola intsertzio altuko galgatxo batzuk, sakontasun txikiko bestibulu bat edo ehunen deformazioak²⁵.

Patologia mota honen garapenarekin lotutako faktore eragileak²² hauek lirateke; hortz-eskuilatze traumatikoa²⁶, tratamendu odontologikoekin lotutako faktore iatrogenikoak²⁷⁻²⁹, arrisku-mugimendu ortodontikoak^{30,31} eta ebidentzia gutxiagorekin hortzoiaren hantura errepikaria^{25,32}.

Azkenik, aipatu behar dugu, atzera-egite talde bat egongo litzatekeela, periodontitisarekin lotutako intsertzio-galeraren progresio natural gisa ager litzatekeenak³³.

2.1.3. Erro-estalduraren sailkapenak eta pronostikoa

Historian zehar erro-estaldurari buruz hainbat sailkapen garatu dira, hala nola Sullivan eta Atkins-ena 1968-an³⁴, Miller-ena 1985-ean⁴ edo Cairo eta kolaboratzaileena 2011-ean⁵. Sailkapen horien helburua, lesioaren tipajea, horien tratamenduaren pronostikoarekin korrelazionatzea zen, beti azken helburuari lotuta, tratamendu kirurgikoaren ondoren lortuko litzatekeen erro-estaldura izango zena.

Jarraian, kirurgia plastiko periodontalaren historian zehar garrantzia izan duten sailkapenak errepassatuko ditugu.

Sullivan eta Atkins-en sailkapena³⁴: Autore hauentzako, atzera-egiteen tamaina (zabalera eta altuera) zen baldintzarik garrantzitsuena eta prozeduraren arrakastarekin korrelazionatu zuten.

Atzera-egiteak lau taldeetan sailkatu zituzten:

- a. Atzera-egite zabalak eta sakonak, non porrota litekeena zen.
- b. Atzera-egite zabalak eta ez oso sakonak, non porrota ia litekeena zen.
- c. Atzera-egite estuak eta sakonak, non arrakasta ia litekeena zen.
- d. Atzera-egite estuak eta ez oso sakonak, non arrakasta oso litekeena zen.

Miller-en sailkapena⁴: Autore honek atzera-egiteen tamaina, hortz-arteko ehunaren egoera eta hortzen posizioa hartu zituen erreferentziatzat, honela sailkatuz:

- a. I. mota: Atzera-egitea ez da lerro mukogingibaleraino iristen eta hortz-arteko ehunak osorik daude. Atzera-egite mota hauetan estaldura osoa espero daiteke.
- b. II. mota: Atzera-egitea lerro mukogingibaleraino iristen da edo gainditzen du eta hortz-arteko ehunak osorik mantentzen dira. Aurrekoetan bezala, estaldura osoa espero den emaitza izango litzateke.
- c. III. mota: Atzera-egitea lerro mukogingibaleraino iristen da edo gainditzen du, atzera-egitearekiko koroalderantzago hortz-arteko ehun gogor eta/edo bigunen suntsipena dago eta/edo hortza gaizki kokatuta dago. Atzera-egite mota hauetan, egileak espero den erro-estaldura partziala izango dela adierazten du.
- d. IV. mota: Atzera-egiteak lerro mukogingibala gainditzen du, atzera-egitearekiko erpinerantzagoko hortz-arteko ehunen suntsipen handiarekin eta/edo hortzaren malposizioa larria da, non Miller-en arabera atzera-egitea estaltzerik ez dagoen.

Cairo *et al.*-en sailkapena^{5,35}: Egin beharreko tratamenduaren pronostikoaren gakoa hortz-arteko intsertzio-mailan dagoela ezartzen dute, honela sailkatuz:

- a. RT1: Atzera-egitea masail-aldean, hortz-arteko intsertzioa galdu gabe: % 100-eko erro-estaldura espero liteke.
- b. RT2: Hortz-arteko intsertzio-galera dago, hau masail-aldeko baino txikiagoa edo berdina da:

Baldintza jakin batzuetan, % 100-eko erro-estaldura lor liteke.

- c. RT3: Hortz-arteko intsertzio-galera masail-aldekoa baino handiagoa da: Ezin da % 100-eko erro-estaldura lortu.

Azken sailkapen hori, Amerikako Periodontzia Akademiak eta Europako Periodontzia Federazioak^{36,37} berriki onartu dute hortzoiaren atzera-egiteen larritasuna zehazteko, "Hortzaren inguruko baldintza eta deformazio mukogingibalen" sailkapen berriaren barruan (2. taula), Amerikako Periodontzia Akademiaren (AAP) aurreko Kontsentsuan³⁸ erabilitako Miller-en sailkapena⁴ ordezkatuz.

Gainera, hortzoiaren atzera-egiteak sailkatzerakoan, ez litzateke soilik zehaztuko zein "Cairo motakoak" diren, baizik eta beste parametro kliniko batzuk ere erregistratu beharko lirateke, hala nola atzera-egitearen sakonera, hortzoiaren zabalera, hortzoiaren lodiera, lepoko lesio ez kariogenikoen edo lepoko txantxarren presentzia, eta idun-lerroa zehazteko aukera (3. taula), izan ere, horiek guztiek lortu nahi den erro-estalduran eragin izan baitezakete³⁶.

2.2. Miller-en III. motako hortzoiaren atzera-egitea

2.2.1. Klinika

Hortzoiaren atzera-egiteak, oro har, ohiko miaketa periodontalean ustekabeko aurkikuntza kliniko bat izan daitezke, edo aurkikuntza diagnostiko bat, hauek arazo mukogingibalaren bat (hantura, mina, eragozpenak, hipersentiberatasuna) eragiten dutelako.

Zehazki, Miller-en III. motako atzera-egiteak batez ere periodontitisa diagnostikatu zaien pazienteengan ikusten dira, eta hori euskarriko periodontoaren suntsitzearekin lortzen da, batez ere hortz-arteko mailan. Hala, ertz-gingibalaren erpineranzko desplazamendua da hauen ezaugarria, zeinek hortz-sustraia aho-ingurunera azaltzea dakarren, hortz-arteko ehun bigun eta/edo hezuraren gal-

tzearekin batera, masail-aldeko ertz-gingibalera heltzen ez dena.

2.2.2. Diagnostikoa³³

III. motako hortzoiaren atzera-egiteen presentziaren diagnostikoa ohiko azterketa periodontal oso baten barruan lortzen da, honetan datzana;

2.2.2.1. Pazientearen historia

- a. Kontsultaren arrazoi nagusia eta itxaropenak: Garrantzitsua da jakitea pazientearen arrazoi nagusia estetikoa edo osasuneko eta funtzionala den, haren itxaropenak datu hauen arabera alda baitaitezke eta klinikoki posible denetik urrun egon litezkeelarik. Horregatik, alderdi hau tratamendu hasi aurretik kontuan hartu behar da, emaitzak ez diezaion frustraziorik eragin, ez klinikoari, ez pazienteari.
- b. Historia soziala eta familiarra: Historia sozialak pazientearen egoera psikologikora bideratu gaitzake, aldi berean, bere egoera animikoarekin lotu litekeelarik. Gainera, familiaren historiak pazienteak intsertzio periodontala galtzeko (periodontitisa) duen gaitzikortasunaz iradoki liezaguke.
- c. Hortz-historia: Pazienteak egungo eta iraganeko bere hortzen egoerari buruz adierazitako historia (odoltzea eskuilatzean, sentikortasuna, sustraiaren esposizioa, hortzen mugikortasuna), bai eta odontologoarengana egindako bisiten maiztasuna ere.
- d. Aho-higiene ohiturak: Aho-higienerako ohitura egokiaren presentzia baloratzea. Hala, eskuilatzearen maiztasuna, iraupena eta intentsitatea, baita hortz-arteko higiene egokiaren egitea jasoko dira. Horrez gain, metodo osagarriren bat erabil dezakete, hala nola eskuila monoponaxoa, mihi-garbitzailea edo irrigatzailea.
- e. Tabako-ohitura: Pazientea erretzailea, ez-erretzailea edo erretzaile ohia den jaso beharko litzateke, berak tabakoarekiko izan duen esposizioa, intentsitateari eta iraupenari dagokiona, ezagutzeko. Tabakoa periodontitisaren progre-

sio-tasari eragiten dion arrisku-faktoretako bat kontsideratzen da³⁹, eta, horrez gain, ehun bigunen orbaintzean esku hartzeaz gain, beraren tratamenduan erabilitako edozein teknikaren erantzuna okerragoa izanik^{15,40}. Klinikoaren jarrera motibaziozkoa eta informaziozkoa izan beharko du beti, etete tabakikorantz zuzendua.

- f. Historia medikoa eta medikazioa: Patologia sistemikoen presentzia, hala nola diabetesa, obesitatea, osteoporosia, artritisa eta hesteetako hanturazko gaixotasunak (kolitis ultzerososa, Crohn-en gaixotasuna), eta pazienteak hartzen duen medikazioak, haren osasun-egoera orokorra ezagutzeko aukera ematen digute eta nola eragin dezaketen ahoko osasun-egoeran, periodontitisaren garapenean edo progresioan, eta egin beharreko tratamenduetan hartu beharko liratekeen ardura espezifikoetan eragin lezake.

2.2.2.2. Zeinu eta sintoma periodontalen balorazioa


Egoera periodontala, bai klinikoki (1. eta 2. irudiak), zunda milimetratu baten laguntzaz Periodontzia eta Osteointegratioko Espainiako Elkartearen (SEPA)⁴¹ web orrian eskuragarri dagoen periodontograman hainbat aldagai kliniko ezberdinak jasoz, bai erradiologikoki estandarizatutako segida erradiologiko (3. irudia) baten laguntzaz, baloratzen da.

Hauek dira erregistratu beharreko aldagai klinikoak:

- a. Zundaketa sakonera (ZS): Ertz-gingibala eta ildoaren edo poltsa periodontalaren hondoaren arteko distantzia milimetrotan, 6 puntutan neurtua, bertan dauden hortz guztietan.
- b. Odoltzea zundatzean (OZ): Aldez aurretik zundatutako hortz bakoitzeko 6 puntutan, odoltzearen presentzia modu dikotomikoan (bai ala ez) erregistratzen da. Eta, azkenik, informazioa




1. irudia. Pazientearen hasierako egoera periodontalaren aurreko eta alboko irudiak.



Plaka-indizea⁴⁶: % 24

Odoltze-indizea⁴²: % 7

2. irudia. Pazientearen hasierako egoera periodontalaren periodontograma osoa.



3. irudia. Pazientearen segida erradiologiko osoa.

zundatzean odoltze-indize gisa ematen da⁴², zundatutako leku guztietatik odoltzen duten gu- neen ehunekoa kalkulatu.

- c. Zorne-jarioa: Hortz bakoitzeko 6 puntutan zorne-jariorik dagoen ala ez erregistratzen da, hortzoiaren gainean presio txiki bat eginez ko-roalderantz.
- d. Hortzoiaren atzera-egitea (HAE): Idun-lerrotik ertz-gingibalerako distantzia milimetrotan, hala-ber, bertako hortz bakoitzeko 6 puntutan.
- e. Intsertzio-maila klinikoa (IMK): Idun-lerroa eta ildoaren edo poltsa periodontalaren hondoaren arteko distantzia milimetrotan. Aldagai hau, alde zurratik hortutako ZS eta HAE aldagaien batuketaren bidez lortzen dugu.
- f. Hortzoi keratinizatuaren zabalera (HKZ): Ertz-gingibaletik lerro mukogingibalerainoko distantzia milimetrotan, bertan dauden hortz guztien masail-aldeko erdiko puntuan neurtuta. Hortzoi keratinizatuaren presentziak egonkortasun pe-riodontalean izan dezakeen eragina oso ezta-baidagarria da, nahiz eta klinikoki beti nahigo den beraren nolabaiteko zabalera izatea⁴³.
- g. Furkatziozko-lesioak: Hodi anitzeko hortzetako furkatziozko-lesioen presentzia eta larritasuna diagnostikatzen da, kasu honetan Nabers zunda erabiliz, I. graduko galera horizontala ezarri hura ≤ 3 mm denean, II. gradukoa > 3 mm-koa denean furkatziozko-lesioa alderik alde zeharkatu gabe, eta III. gradukoa zundarekin furkatziozko-lesioa erabat zeharkatzen du- nean⁴⁴.
- h. Hortz-mugikortasuna: Honen presentzia eta larri- tasuna bi tresnen kirtenekin koroari mugimendu horizontal eta bertikal bat aplikatuz baloratzen da, 0 gradukoa edo fisiologikoa (0,1 - 0,2 mm noranzko horizontalean), 1 gradukoa (≤ 1 mm noranzko horizontalean), 2 gradukoa (> 1 mm noranzko horizontalean) edo 3 gradukoa (mu- gikortasun handia noranzko horizontalean eta hortzaren intrusioa) bezala sailkatuz⁴⁵.
- i. Plaka-indizea (PI): Plaka errebelatzaile batekin lortzen da. Hortz bakoitzeko 4 puntutan (3 ma- sail-aldean eta 1 mihi-/ahosabai-aldean), era dikotomikoan (bai ala ez), plakaren presentzia erregistratzen da, eta dauden leku guztietatik plaka duten guneen ehunekoa kalkulatu da⁴⁶.

- j. Anlisi erradiologikoa, kono-luzeko paraleliza- zio teknikarako lerrokadura duen portafilma sis- temarekin⁴⁷, segida erradiologiko estandarizatu bat (VistaScan®, Dürr Dental SE, Bietigheim-Bis- singen, Alemania) osatu ondoren egiten da. Bertan dauden hortz bakoitzean, hortz-arte-ko hezur-galera dagoen ala ez informazioa ema- ten digu, bai eta beraren larritasunarena eta formarena, horizontala edo bertikala, ere. Gai- nera, beste nahasmendu batzuk diagnostika- tzeko aukera ematen digu, hala nola txantxar lesioak, lesio endodontikoak, plakaren faktore atxikitzaileak, etab.

2.2.2.3. Aho-barrunbearen azterketa gehigarria

Azterketa periodontala aho-barrunbeko gaine- rakoaren azterketa oso batekin osatuko da, plaka- ren erretentzio faktoreen presentziaren, hortzetako hipersentikortasunaren, txantxar lesioen presentzia- ren, funtzio oklusal eta artikularraren eta abarren balorazioan oinarrituko dena³³.

2.2.2.4. Diagnostiko periodontala

Azterketa periodontal kliniko eta erradiologikoare- kin pazientearen diagnostiko periodontala ezar dezakegu: paziente osasunean⁴⁸, paziente gingi- bitisarekin⁴⁸ edo paziente periodontitisarekin (Fa- sea, Grada)⁴⁹. Horrekin guztiarekin, hortzoiaren atzera-egiteen presentzia eta kantitatea zehaztu on- doren, bakarrak edo anizkoitzak (> 2 atzera-egite), Miller-ek⁴ ezarritakoaren arabera sailkatuz.

2.2.3. Hortzoiaren atzera-egiteen pronostikoa eta tratamendu-plana

Pazientea osasun periodontalera eraman ondoren, oso garrantzitsua da hortzoiaren atzera-egiteen tra- tamendu etiologikoa egitea (atzera-egitearen kontro- la, aho-higienea, eskuilatze-ohiturak aldatzea). Izan ere, faktore eragileak zuzentzen ez badira, aldaga-

riak behintzat, berriro ager daitezke^{15,50}. Ondoren, eta horretarako argibiderik badago, kirurgia plastiko periodontalaren bidez ikusgai dagoen sustrai gainazala tratatuko da, "hortzen inguruko hortzoiaren morfologian, posizioan edota kantitatean dauden akatsak zuzentzeko kirurgia plastikozko prozeduren multzoa"⁵¹ bezala definitzen dena.

Miller-en III. motako atzera-egiteen tratamendurako indikazioak estetika, hanturaren iraunkortasuna, atzera-egite progresiboak, hipersentikortasuna dentinarioa eta arrisku-mugimenduak egin behar-ko liratekeen tratamendu ortodontikoaren aurreko terapia dira^{10,52,53}. Gainerako egoera klinikoetan, gure jarrera ikuskatzailea izango da, nahiz eta berriki egindako berrikusketa sistematiko batek¹⁵, aho-higiene ona duten pazienteetan, tratatu gabeko atzera-egiteak epe luzean aurrera egiteko probabilitate handia dutela (% 78,1) ondorioztatzen duen.

Miller-en III. motako atzera-egite anizkoitzen tratamendu kirurgikoan lor genezakeen erro-estalduraren pronostiko bat ezartzea zaila da, izan ere, hainbat faktore baitaude, atzera-egitearen, pazientearen eta teknika kirurgikoaren mendekoak, lortu beharreko emaitzetan eragin dezaketenak. Honako hauek dira inplikaturako faktoreak:

2.2.3.1. Hortzoiaren atzera-egitearen mailan

- a. Hortzoiaren atzera-egiteen kopurua: Miller-en III. motako atzera-egite unitarioak aurkitzea ez da hain ohikoa, izan ere, oro har alboko hortzetan agertzen dira, ohantze hartzailearen eremu abaskularra eta eremu kirurgikoa handitzen dutelarik, aldaketa anatomiko handiagoak aurkeztu ditzaketelarik, eta horrela lortu nahi den erro-estaldura lortzea zailduz⁵⁴.
- b. Hortza, kokapena eta posizioa: Literatura zientifikoan, barailean^{55,56}, eta hagin eta aurreko hagineta^{57,58} erro-estaldura osoa lortzeko zailtasunari buruzko adostasuna dago. Gainera, hortzak arkuaren duen hiru dimentsioko posizio anomaloak, hortzoi-ehun bigunaren eta hezur-ehunaren posizioaren baldintza-tzaile izan daiteke, nahiz eta intsertzio periodontalaren galerarik ez izan⁵⁹. Horrela, Gil

et al.-ek⁶⁰ ikusi zuten sustraiaren goraguneak eragin negatiboa zuela erro-estalduraren emaitzetan.

- c. Hortzoiaren atzera-egitearen tamaina: Era berean, atzera-egitearen hasierako sakonera^{15,61,62} eta zabalera⁶³ handiagoan, orduan eta handigoa izango da gainazalaren azalera abaskularra (AERSA), haren estaldura lortzea zailduko duena^{5,64}.
- d. Lepoko lesio ez kariogenikoen (LLEK) presentzia, hortzoiaren atzera-egiteetan maiz agertzen den kondizioa da, eta erro-estaldura osoa izateko probabilitate txikiagoarekin lotuta dago^{65,66}.
- e. Hortz-artearen ehunaren osotasunak erro-estalduran korrelazio positiboa du, estali beharreko hortzoiaren atzera-egitea inguratzen duen ohantze hartzailearen euskarria eta eremu abaskularra handiagotuz⁶⁷⁻⁶⁹. Hala, Miller-ek⁴ III. motako hortzoiaren atzera-egiteetan erro-estaldura partziala besterik ez zela espero behar ezarri zuen arren, ebidentziarik berrienak, teknika eta material berrien garapenarekin, erro-estaldura osoa baldintza zehatz batzuetan lor daitekeela ezartzen dute^{70,71}. Duela gutxi, papilaren dimentsioak ere lor daitekeen erro-estalduraren kantitatea zehaztu dezakeela iradoki dute⁷².
- f. Atzera-egitearen erpinerantz dagoen hortzoi keratinizatuaren kantitateak ez du behar adinako ebidentzia zientifikorik. Zenbait ikertzaileek⁷³ korrelazio positiboa ikusi dute hortzoi keratinizatuaren kantitate handiagoaren eta erro-estaldura osoaren aukera handiagoaren artean.
- g. Fenotipo periodontala⁶⁹ zintzilarioaren lodieran eragin zuzen du, eta honek erro-estaldura osoaren lorpenean zuzenki eragin lezake^{74,75}.

2.2.3.2. Pazientearen mailan

- a. Pazientearen nahiak: Atzera-egiteen tratamenduren arrazoi nagusia kezka estetiko bati erantzuteko bada, hobe litzateke zintzilario pedikulatuak¹² edo tunelizatuak aukeratzea, ondoko eremuaren itxura nahi den lekura eramaten baitute, horrela, mentu gingibal libreen aurrean estetika hobea lortuz⁷⁶. Gainera, ehun konektibozko mentu bat jartzeak, zintzilarioa

bakarrik erabiltzearen aldean, pazienteen gogobetetze-maila altuagoarekin korrelazionatzen da, baina, aldi berean, morbiditate handiagoarekin⁷⁷.

- b. Tabako-ohitura: Erretzailengan erro-estaldura osoa lortzea zailagoa da, tabakoak orbaintze periodontal egokia oztopatzen baitu^{78,79}.


2.2.3.3. Teknika kirurgikoaren mailan

- c. Zintzilikarioan tentsiorik ez egoteak neobaskularizazioa erraztuko luke eta erro-estalduraren emaitzak hobetuko lituzke^{80,81}.
- d. Josi ondoren, ertz-gingibala idun-lerroarekiko (II) koronalerago egotea faktore garrantzitsua da erro-estaldura osoa lortzeko orduan. Horrek kirurgiaren ondorengo ehun bigunaren uzkurdu-ara konpentsatuko bailuke⁸².
- e. Sustraiaren gainazala hainbat produktu egokitzailerekin tratatzeak ez dirudi onura gehigarriarik ekarriko duenik erro-estaldura lortzeko orduan⁸³. Hala ere, esmaltetik eratorritako matizeak (EMD), sustraiaren gainazala EDTA-rekin egokitu ondoren, nabarmen handitu lezake lortutako erro-estaldura^{84,85}.
- f. Operadorearen trebetasuna, hartutako esperientzia kirurgikoarekin batera, hortzoiaren atzera-egieetan erro-estaldura osoa lortzeko orduan faktore garrantzitsuenetakoa bat da^{86,87}. Zentro anitzeko ikerketetan, "efecto centro" deritzona ikusi da, non prozedura kirurgiko beraren aurrean emaitza ezberdinak lortzen diren^{35,88}.
- g. Erabilitako mentuaren mota eta lodiera: Oraindik ere, gaur egun, ahosabaiko ehun konektibozko mentua hortzoiaren atzera-egiteen tratamenduan "gold standard" izaten jarraitzen du^{15,89,90}. Haren lodierari dagokionez adostasunik ez dagoen bitartean, zenbait egileek^{67,91} >2 mm mentua defendatzen dute, beste batzuek⁹² berriz, mentua zenbat eta lodiagoa izan, orduan eta zailagoa izango dela haren baskularizazioa adierazten dute.


2.3. Miller-en III. motako edo Cairo-ren RT2-ko hortzoiaren atzera-egiteen tratamenduaren berrikusketa sistematikoa

Miller-en III. motako edo Cairo-ren RT2-ko atzera-egiteen tratamenduan erabilitako teknika plastiko periodontalak eta horien bidez lortutako emaitza klinikoak ezagutzeko asmoz, berrikusketa sistematiko eta meta-analisi bat⁹³ egin zen 2019-ko Abendura arte zegoen ebidentzia jasoz, 2020-ko Abendura eguneratu zena, PRISMA gida⁹⁴ jarraituz.

Bilaketa bibliografikoa PubMed (zk.= 168), Web of Science (zk.= 205), Cochrane Library (zk.= 56) eta Scopus (zk.= 57) datu-baseetan egin zen, gutxienez 6 hilabeteko jarraipenarekin^{95,96}, atzera-egite horien tratamendu plastiko periodontala jasotzen zuten ingelesezko eta gaztelaniazko artikulua barneratuz. Erabilitako hitz-gakoak, ondorengo konbinazioarekin, hauek izan ziren: ("Class III recession" OR "RT2 recession") AND ("treatment"). Horrela, 82 artikulua lortu ziren testu osoan irakurtzeko, baztertutakoak eta horren arrazoiak 4. taulan jasotzen direlarik (4. irudia).



4. irudia. PRISMA fluxu diagrama⁹⁴.



5. irudia. Autoreen iritzizaren araberako alborapen-arriskuaren grafikoa, banakako azaterketa bakoitzerako eta barne hartutako ikerketa guztien ehuneko gisa.

Azkenik, 43 ikerketa lortu ziren (28 kasu-txosten^{40,91,97-122}, 11 entsegu kliniko^{64,70,71,84,86,96,123-127} eta 4 atzerabegiko ikerketa^{67,128-130}), non azterlanen erdiak baino gutxiagok (19 ikerketek) kondizio hau tratatzera soilik bideratu ziren. Gainera, gehienak kasuei buruzko txostenak ziren, alborapen-arrisku handiarekin (5. irudia), eta jarraipen muga-

tuarekin, batez ere 6 eta 12 hilabetera, 8 ikerketek^{91,102,105,107,114,119,125,130} izan ezik 12 hilabeteko jarraipenetik haratago zihoazela, Pini-Prato *et al.*-ena¹⁰⁷ nabarmenduz 20 urtera artekoa. Horietatik, bakarra zen entsegu kliniko bat¹²⁵, eta, gainera, bi entsegu klinikok bakarrik jaso zituzten datuak 12 hilabetera^{71,84} (5. taula).

pazienteak, materiala eta metodoak



Planteatutako hipotesiari erantzuteko, ausazko entsegu kliniko formatuan, ikerketa-protokolo bat diseinatu zen. Protokoloak, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gizakiekin Ikertzeko Etika Batzordearen (CEISH) aldeko txostena jaso zuen, M10_2017_042_FERNÁNDEZJIMÉNEZ espediente zenbakiarekin.

Ikerketa-protokolo hau, 2017-ko abuztuaren 18-an erregistratu zen [ClinicalTrials.gov](https://clinicaltrials.gov) web-orrian, NCT03258996 nortasun kodearekin.

3.1. Azterketa-taldea

Erro-estalduraren ehunekoa lehen mailako erantzun aldagai gisa erabiliz, Test Taldearen eta Kontrol Taldearen artean % 20-ko aldea aurkitzeko, DE= % 24,86-arekin⁷¹, % 5-eko alfa-arriskuarekin eta % 85-eko potentziarekin, tratamendu talde bakoitzeko 28 paziente beharko genituela estimatu zen¹³¹. Gainera, balizko abandonuak kontuan hartuta, pazienteen kopurua % 20 handitu genuen, azkenik talde bakoitzeko 34 paziente ezarriz.

Barneratze-irizpide hauek izan ziren: a) UPV/EHU-ko Periodontzia eta Osteointegratioko Master-era etorri ziren pazienteak, b) 18 urtetik gorakoak, c) Miller-en III. motako⁴ (gutxienez hiru atzera-egite), 2 milimetro edo gehiagoko atzera-egite anizkoitzak dituztenak, d) patologia periodontal aktiborik ez izatea, e) \leq %15-eko plaka-indize eta odolitze-indize batekin^{42,46}, eta f) ikerketan askatasunez eta borondatez parte hartzeko onarpena.

Baztertze-irizpideak hauek izan ziren: a) Eguneko 10 zigarro baino gehiagoko erretzaileak, b) kirurgia kontraindikatzan duten baldintza sistemikoak izatea, c) azken 72 orduetan analgesikoak eta antiinflamatorioak hartu izana, d) farmako opiazeoak, konbultsio-kontrakoak eta antidepressiboak hartzea, serotonina-inhibitzaile selektiboak izan ezik, e) haurdun edo edoskitzaroan dauden emakumeak, eta f) ikerketan parte hartu nahi ez dutela adierazi.

Azkenik, hautaketa-irizpide hauek aplikatu ondoren, eta UPV/EHU-ko Odontologia Klinika Zerbitzura joaten ziren pazienteak soilik hautagarriak zirela kontuan hartuta, 24 paziente aukeratu ziren 2017-ko apiriletik 2019-ko otsailera, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Periodontzia eta Osteointegratioko Master-era lehen bisita egin ondoren. Lagin hau 14 emakumek

(% 58,33) eta 10 gizonen (% 41,67) osatu zuten, batez besteko 53,21 urteko [31 - 73] adinarekin.

3.2. Protokoloa eta datu-bilketa

3.2.1. Erabili beharreko teknikaren ausazkotzea

- a. Ausazkotze-sekuentziaren kalkulua: 68 pazienteko talde batentzat 4 tratamenduko blokeetako ausazkotzea erabili zen, test edo kontrol teknika jasotzeko¹³².

```

Random codes for Drug: Technique
Protocol: Vista_CAF
-----
SubjectID  Assignment
-----
10000001  Test          10000018  Test          10000035  Test          10000052  Test
10000002  Test          10000019  Test          10000036  Test          10000053  Test
10000003  Control       10000020  Control       10000037  Test          10000054  Test
10000004  Control       10000021  Test          10000038  Control       10000055  Control
10000005  Control       10000022  Control       10000039  Test          10000056  Control
10000006  Test          10000023  Control       10000040  Control       10000057  Test
10000007  Test          10000024  Test          10000041  Control       10000058  Control
10000008  Control       10000025  Test          10000042  Test          10000059  Test
10000009  Test          10000026  Control       10000043  Test          10000060  Control
10000010  Test          10000027  Test          10000044  Control       10000061  Control
10000011  Control       10000028  Control       10000045  Control       10000062  Control
10000012  Control       10000029  Test          10000046  Test          10000063  Test
10000013  Control       10000030  Control       10000047  Test          10000064  Test
10000014  Test          10000031  Control       10000048  Control       10000065  Control
10000015  Control       10000032  Test          10000049  Control       10000066  Test
10000016  Test          10000033  Control       10000050  Control       10000067  Test
10000017  Control       10000034  Control       10000051  Test          10000068  Control

```

- b. Maskaratzeta edo itsutze hirukoitza

1. Parte-hartzailea: Hasieran, pazienteak ez zekien zein teknika jaso zuen. Erabilitako teknika kirurgikoari buruzko informazio osoa, baita bere kasuan lorturiko emaitzena, 12 hilabeteko azken bisitan eman zitzaizkion paziente bakoitzari, indarrean dagoen araudia beteaz (pazientearen lege autonomikoa)¹³³.
2. Behatzailea: Ebakuntzarekin zerikusirik ez zuen periodontzista batek (R.E.), ezarritako parametro klinikoak erregistratzeaz arduratu zen.
3. Analista: Bioestatistikariak (X.M.) datuak aztertzean, ez zekien zein teknika kirurgikori zegokion aldagai bakoitza.

3.2.2. Ebakuntza definitzea

Aldagai independentea, erabilitako teknika zen (aldagai kategorikoa): m-VISTA teknika¹⁴ EKM batekin konbinatuta (Test Taldea), KBZ teknika¹² EMK batekin batera (Kontrol Taldea) alderatuta.

3.2.2.1. Teknika kirurgikoa

Kirurgia egin aurretik, minutu batez % 0,12-ko klorhexidina kolutorioarekin (Perio-Aid®, Dentaïd S.L., Bartzelona, Espainia) irakuzketa egin zen¹³⁵ eta ebakuntza egin beharreko eremua modu infiltratiboan anestesiatu (Ultracain®, Laboratorios Normon S.A., Madril, Espainia) zen. Ondoren, tratatu beharreko sustraien aainazalaren karrakatzea eta leuntzea

Gracey kureten (Hu-Friedy®, Mfg. Co. LLC, Chicago, Estatu Batuak) eta kontraangelurako errugbi-baloizko fresa diamantatu luze baten (PerioSet®, Vannetti S.A., Gordevio, Suitza) bidez prestatu ziren.

Jarraian, test edo kontrol teknika kirurgikoa egin zen, pazienteari ausaz esleitu zitzaizkion. Esleipena, ebakuntzaren unera arte, monitore kliniko batek (A.M.G.) ezkutuan mantendu zuen.

Test Taldean m-VISTA teknika¹⁴ erabili zen, UPV/EHU teknikaren¹³⁵ bidez hartutako ahosabaiko EKM batekin batera (6. irudia), Zadeh-ek 2011-n¹³⁶ deskribatu zuen VISTA teknika originalarekiko aldatua izan zena.

Jatorrizko teknika (VISTA)¹³⁶, periostioaren azpiko tunel zabal bat, mukosaren masai-aldeko ebaki bertikal bakar batean zehar egitean datza. Prestaketa lerro mukogingibaletik haratago eta hortz-arte



6. irudia. VISTA aldatua (m-VISTA)¹⁴ (testa) teknika plastiko periodontala, 4° kuadrantean.

papilen azpira nahiko hedatzen da ertz-gingibalaren trakzio koronala lortzeko, josturaren eta tratatu beharreko hortzen masail-aldeko aurpegian ainguratutako konposite-puntu batzuen laguntzarekin. Jarraian, hautatutako mentua (ahosabaiko edo tuberositateko EKM, edo ehun bigunen ordezeko bat, aloinjerto dermiko azelularra edo kolageno matrize xenogeniko matrize bat), plaketetatik eratorritako hazkunde-faktoreekin batera sartzen da, ebaki bertikaletik zehar. Azkenik, ebaki bertikala puntu sinpleekin josten da.

Proposatutako diren aldaketa nagusiak, zintzilikario-EKM-papila konplexu osoaren trakzio koronalean oinarritu ziren, papilak hartzen dituzten ildo-barneko ebakiei eta aurrez konpositez itxitako kontaktu-puntuetan ainguratu diren jostura-puntu ugariei esker. Gainera, ehun konektibo mentua baino ez da erabiltzen, kasu guztietan ahosabaitik lortu dena.

Jarraian m-VISTA teknika¹⁴ zabal deskribatzen da:

- a. Tratatu beharreko hortzen hortz-arteko ukipen-puntu hurbilean eta urrunean, grabaturik gabeko konposite jariakorreko puntuak (Tetric EvoFlow®, Ivoclar Vivadent S.L.U., Madril, Espainia), jostura suspentsorea ainguratzeko eta

horrela, beraren kolapsoa saihesteko.

- b. Mikrobisturi-orri batekin (SM69®, Swann-Morton Ltd, Sheffield, Erresuna Batua) ildo-barneko ebakiak. Beheko ebakortzetan orri txikiago bat erabili zen (KAI®, Kai Europe GmbH, Solingen, Alemania). Ebakiak gutxienez tratatu beharreko atzera-egiteetatik hortz bat haratago zabaldu ziren eta papilen oinarria.
- c. Ebaki bertikal bakarra, lerro mukogingibala pixka bat zeharkatuz, tratatu beharreko eremuaren erdian. Hortik aurrera, plano bakar batean zintzilikario mukoperiostiko bat altxatzen hasi zen, "tunel" bat preparatzeko kureta espezifikoekin (Stoma®, Ancladen S.L., Bartzelona, Espainia), tentsiorik gabe eta behar adinako desplazamendu koronalarrekin.
- d. Ahosabaiaren alde berean, nahi den tamainako, ehun konektibo mentua hartzea. UPV/EHU teknika¹³⁵ erabili zen, 15 zenbakiko bisturiarekin, zabalera ezin hobeko mentua lortzeko 2 mm ingurukoa⁶⁷. Tratatu beharreko eremuaren estentsioa dela eta, sare hedatuaren prozeduraren bidez (e-MCTG)¹³⁷ mentua luzatu zen. Ondoren, hau gatz-disoluzioan mantendu zen, gune emaila hortzen inguruko puntu suspentsore bertikalekin, jostura ez-birxurgagarriarekin


(TB15; 3/8; 5/0) (Supramid®, Laboratorio Aragón, Bartzelona, Espainia), josten ari zen bitartean.

- e. Konektibozko mentua, bi josturen laguntzaz, prestatutako ebaki bertikaletik sartzea. Lehen jostura ildo-gingibal urrunenean hasten da, tunel osoa zeharkatuz eta ebakidura bertikal bakarretik irtenez. Mentua pintzatu ondoren, bide beretik bueltatzen da, josturarekin ildo-gingibal beretik atera arte. Bigarren josturak prozedura bera errepikatzen du, ildo-gingibal hurbilenetik hasita. Azkenik, bi josturen txandakako indar arin bat erabiliz, eta periostotomo baten laguntzaz, mentua ebaki bertikaletik sartzen da eta, zehaztasunez, nahi zen lekuan kokatzen da.
- f. Zintzilikario-EKM-papila konplexuaren trakzioa eta egonkortze koronala, jostura ez-birxurgagarrien bidez (DS12; 3/8; 5/0) (Seralon®, Osteógenos S.L, Madril, Espainia), ukipen-puntu bakoitzaren gaineko jostura bertikal bikoitz-gurutzatua teknikarekin¹³⁸. Mentua hurbil- eta urrun-aldean egonkortu ondoren, mentua sartzeko erabiltzen ditugun josturak kentzen dira.
- g. Puntu sinpleekin eta jostura ez-birxurgagarriekin (DS12; 3/8; 5/0) (Seralon®, Osteógenos S.L, Madril, Espainia) ebaki bertikala josi zen.

Kontrol Taldean KBZ teknika¹² erabili zen, ahosabai-

ko EKM batekin batera (7. irudia). Jarraian, teknika deskribatzen da:

- a. Zucchellik eta De Sanctis-ek 2000 urtean¹² deskribatu zuten zintzilikarioaren diseinua eta honela laburbildu dezakegu: atzera-egite bakoitzaren hortz-arteko bi eremuetan ebaki azpimarjinal zehiarrak ildo-barneko ebakiekin jarraitzen duena, tratatu beharreko hortzen alde bakoitzeko hortz batera zabalduz, nahi den birjartze koronala errazteko.
- b. Korono-erpinerantzko norabidean "partzial-tal-partzial" lodierako zintzilikarioa altxatzea. Hasiera batean, lodiera partzialera igotzen da, ebaki azpimarginal zehiarretatik atzera-egitearen oinarriraino, horrela, papila kirurgiko berria sortuz. Ondoren, lodiera osora atzera-egitearen erpineko ehun gingibalak goratzen dira (erro-estaldurarako kritikoa den zintzilikarioaren zati horrek, lodiera handiago izan zezan) eta, azkenik, zintzilikarioaren zatirik erpinekoena, berriro ere, lodiera partzialean igotzen da "periostioa disezionatuz" zintzilikarioaren desplazamendu koronala errazteko.
- c. Masail-aldeko mukosaren disezio sakona, muskuluaren txertaketak kentzeko 15 zenbakiko bisturi batekin (Swann-Morton Ltd, Sheffield, Erresuma Batua). Zintzilikarioak tentsiorik gabe geratu behar du, eta pasiboki mantendu nahi den posizioan.



7. irudia. Koroalderantz birjarritako zintzilikario (KBZ)¹² (kontola) teknika plastiko periodontala, 3º kuadrantean.

- d. Hortz-arteko papila anatomikoen desepitelizazioa, mikrobisturi baten (SM69®, Swann-Morton Ltd, Sheffield, Erresuma Batua) eta disezio-guraize baten (Tijeras Baranquer STR®, Power Dental U.S.A., Inc., Illinois, Estatu Batuak) laguntzarekin, ehun konektibozko ohar bat sortzeko, non zintzilarioaren diseinuaren bidez kirurgikoko sortutako papila berria kokatu eta josi egingo den.
- e. Mentua, lehen azaldutako teknika erabiliz, hartu zen.
- f. Ehun konektibozko mentuaren egonkortzea jostura birxurgagarriarekin (P3; 3/8; 5/0) (Coated Vicryl®, G.G. Mersons Limited, Ethicon Suture Laboratories, Ohio, Estatu Batuak), atzera-egiteak zituzten hortzen gaineko jostura esekitzailen bidez, papila anatomikoak zeharkatuz.
- g. Azkenik, jostura suspentsoreak ere erabili ziren¹² (DS12; 3/8; 5/0: Seralon®, Osteógenos S.L, Madril, Espainia), ageriko sustraiaren gainean masail-aldeko zintzilarioaren egokitze zehatza lortzeko eta papila kirurgiko bakoitza desepitelizatutako hortza-arteko eremu bakoitzaren gainean egonkortzeko.

Kirurgia guztiak UPV/EHU-ko Periodontzia eta Osteointegratiozko Master-ean egin ziren.

3.2.2.2. Protokolo poskirurgikoa

- a. Berehalakoa: a) Profilaxis antibiotikoa: Amoxicilina 875 mg / Azido Klavulanikoa 125 mg (Augmentine®, GlaxoSmithKline S.A., Madril, Espainia) ahotik, 8 orduz behin, 7 egunez, b) Ibuprofeno 400 mg (Ibuprofeno Kern Pharma®, Kern Pharma, S.L., Bartzelona, Espainia) ahotik, 8 orduz behin, 2 egunez, c) % 0,12-ko klorhexidina kolutorioarekin irakuzi (Perio-Aid®, Dentaaid S.L., Bartzelona, Espainia) egunean, 2 aldiz, 6 astez, d) ebakuntzaren hirugarren astera arte, ebakuntzaren eremua eskuilatzea saihestea, e) tokiko hotza bi egunez aplikatu eta dieta biguna, f) tratatutako eremuan traumatismoak ekidin, eta g) ebakuntzaren ondorengo astean kirolak eta ahalegin fisikorik ez egitea.
- b. Eremu emailearen josturak astean kentzea, eta gainerakoak, 2 astean.

- c. Ebakuntza kirurgikoaren osteko hirugarren astean, pazienteak eskuilatzearekin ekingo dio berriro, Stillman-en teknikaren bidez¹³⁹, eskuila kirurgiko batekin (VITIS cirugía®, Dentaaid S.L., Bartzelona, Espainia), 3-4 astez.
- d. Kirurgia egin eta, gutxi gorabehera 6 astera, pazienteak bere hortzetako eta hortz-arteko higie-ohiturei ekin die berriro.
- e. Prozeduratik 1, 3, 6 eta 12 hilabetera, pazienteak mantentze periodontal eta aho-higiea indartzeko programa batean sartu ziren.

3.2.3. Erregistratu ziren aldagai klinikoak

Ikerketari ekin aurretik, aztertzailearen erreproduzagarritasuna baloratu zen (aztertzaile-barnekoa). Kontuan hartuta lehen mailako erantzunaren aldagaia batez besteko erro-estalduraren ehunekoa zela, hasierako eta amaierako atzera-egitearen aldaketatik abiatuta kalkulatu zena, aztertzailea atzera-egiteak neurtzeko orduan kalibratuta zegoela egiaztatu behar zen. Horregatik, azterketa hasi aurretik, aldagai hori jasoko zuen klinikoak (R.E.) azterketatik kanpoko 4 pazienteren atzera-egiteak neurtu zituen, gutxienez 24 orduz elkarrengandik banandutako bi bisitatan. Aldagai kuantitatiboa zenez, klase-barruko korrelazio-koefizientea kalkulatu zen, gutxienez 0,75-eko balioa onartuz.

Aztertzaile eskarmentudun, itsutu eta kalibratu berdinekin (R.E.), kirurgiak egin zituenaren ezberdina, kirurgiaren aurretik, 6 eta 12 hilabetera, 11 zunda periodontala (PCP-11, Hu-Friedy®, Mfg. Co. LLC, Chicago, Estatu Batuak) erabiliz, inplikaturako hortz bakoitzean, honako parametro kliniko hauek erregistratu zituen:

- a. Hortzoiaren atzera-egitea (HAE): Distantzia milimetrotan IL-tik ertz-gingibalera, masail-aldeko erdiko puntuan neurtuta. Kirurgiaren aurretik bertan zeuden hortz guztietan erregistratu zen (kordalak izan ezik), eta jarraipenean zehar tratatu beharreko atzera-egiteetan soilik.
- b. Tratatu beharreko atzera-egiteen kopurua (TAE-Kop): Tratamendua jaso behar zuten III. motako atzera-egiteen kopurua erregistratu zen.
- c. Tratatu beharreko atzera-egiteen kopurua (TAEKok): Atzera-egiteak bi multzori esleitu zituzten.

tzaizkien, aldebatetik, goikomasailazurreko atzera-egiteak eta, bestetik, barailako atzera-egiteak. Gainera, atzera-egitea zuen hortz mota zehatza erregistratu zen.

- d. Hortzoiaren atzera-egitearen zabalera (HAEZ): Atzera-egitearen koroaldean hartutako distantzia hurbil-urruna, milimetrotan neurtuta. Tratatu beharreko atzera-egiteetan bakarrik erregistratu zen.
 - e. Hortzoi keratinizatuaren zabalera (HKZ): Ertz-gingibaleetik lerro mukogingibalerainoko distantzia milimetrotan, masail-aldeko erdiko puntuan neurtuta. Tratatu beharreko atzera-egiteetan bakarrik erregistratu zen.
 - f. Ukipen-puntutik hortz-arteke papilarainoko distantzia (UP-HP): Distantzia milimetrotan, atzera-egitea duen hortzaren hurbil- eta urrun-aldeko ukipen-puntutik, hortz-arteke papilaren zatirik koro-alderenera. Tratatu beharreko atzera-egiteetan bakarrik erregistratu zen. Ukipen-puntua ez zegoenean, neurketa hau ez zen kokaleku horietarako egin.
 - g. Zundaketa sakonera (ZS): Ertz-gingibaleetik ildo-gingibalaren hondoraino milimetrotan dagoen distantzia. Hasieran, bertako hortz guztietan erregistratu zen (kordalak izan ezik), hortz bakoitzeko 6 puntutan (masail-hurbilean, masail-erdian, masail-urrunean, mihi-hurbilean, mihi-erdian eta mihi-urrunean), eta jarraipenean zehar, soilik, tratatu beharreko atzera-egiteen masail-aldeko erdiko puntuan.
 - h. Pazientearen odoltze-indizea (OI): Hortz guztien zundaketa periodontala egin ondoren, odoltzea hortz bakoitzeko 6 puntutan (masail-hurbilean, masail-erdian, masail-urrunean, mihi-hurbilean, mihi-erdian eta mihi-urrunean) erregistratu zen, era dikotomikoan (bai ala ez), eta zundatutako leku guztietatik odoltzen zuten lekuen ehunekoa kalkulatu zen⁴².
 - i. Pazientearen plaka-indizea (PI): Plaka-errebeltzaille bat erabili zen (Plac-Control®, Dentaïd S.L., Bartzelona, Espainia) eta dikotomikoki (bai ala ez) erregistratu zen plakaren presentzia hortz bakoitzeko 6 puntutan (masail-hurbilean, masail-erdian, masail-urrunean, mihi-hurbilean, mihi-erdian eta mihi-urrunean), eta zundatutako leku guztietatik plaka zuten lekuen ehunekoa kalkulatu zen.
 - j. Erro-estaldura osoa (EEO): 6 eta 12 hilabeteko jarraipenetan, HAE= 0 mm zituzten tratatutako atzera-egiteen kopurua jaso zen.
 - k. Azal zitezkeen gertakari postkirurgikoen (GPK) presentzia edo ez, hala nola deskribapena, jaso zen.
- Pazientearen pertzepzioari lotutako aldagiak honela jaso ziren:
- a. Sentsibilitate zentralako maila klinikoa: Kirurgiaren aurretik, sentsibilizazio zentralako galdetegia (SZG)¹⁴⁰ bete zen, pazientearen sentsibilizazio zentralako maila zein zen jakiteko, faktore horrek kirurgia osteko erantzun mingarria eragin zezakeelako, egindako interbentzioa edozein izanda ere¹⁴¹. Zehazki, Espainiako biztanlerian erabiltzeko balidatutako eta egokitutako galdetegia erabili zen¹⁴². A zatian, paziente bakoitzari galdetu zitzaion zer maiztasunetan hautematen zituen 25 sintoma, eta bakoitzari 0-4 arteko puntuazioa eman zitzaion, pazientearen sentsibilizazio zentralako maila klinikoa 0-100 arteko heinean ezarriz: subklinikoa (0-29), ertaina (30-39), moderatua (40-49), larria (50-59) edo muturrekoa (60-100). B zatian (kuantifikatu gabea), pazienteari galdetu zitzaion ea sentsibilizazio zentralako sindrome (fibromialgia, neke kronikoaren sindromea, zango urdurien sindromea, tenporal eta barailaren artikulazioen arteko arazoak eta migrainak edo zefalea tensionala) deiturikoen barruan sartutako desordenen batez edo gehiagoz diagnostikatu ote zuten, Yunusek deskribatutakoak¹⁴³ eta orain *overlapping* min kornikoaren baldintza¹⁴⁴ deiturikoen taldean sartuta daudenak.
 - b. Mina: Pazienteari, minaren eguneroko bat eman zitzaion, gure taldeak diseinatua eta "UPV/EHU pain diary"¹⁶ (8. irudia) izenekoa, ikuste-eskala analogikoan (IEA)¹⁴⁵ oinarrituta. Aztertzaileak azken hilabeteen pazienteak buruko eta lepoko min erregionalik izan zuen erregistratu zuen, eta berehalako prekirurgikoan minik bazuen, baiezkoa bazen, haren intentsitatea jaso zen. Pazienteari instrukzioak eman zitzaizkion ebakuntza egin eta 2 eta 4 ordura min postkirurgikoaren pertzepzioa jaso zezan eta, ondoren, 8 ordutik behin, lehen 3 egunetan (antibiotikoaren hartzearekin batera); 72 orduren

ondoren (lehen hiru egunen), egunean behin erregistratu zen, azken orduan, astebetean edo guztiz amaitu arte. Zehazki, pazienteak honako hauek erregistratu zituen: intentsitate handiena (0-100), min maximo horren iraupena (minutuak edo orduak) eta preskribatutakoaz gain beste tratamendu analgesiko gehigarriren bat behar

izan ote zen ala ez (Ez edo Bai: Zein?).

- c. Emaizta estetikoak: Aztertzaileak berak ebaluatu zuen pazientearen gogobetetze-maila ebakuntzatik 6 eta 12 hilabetera lortutako emaitza estetikoarekin, IEA-an¹⁴⁵ oinarritutako galdetegi baten bidez.

Prekirurgikoa		2 ordu		4 ordu		8 ordu		16 ordu			
Buru-lepoko mina	Berehalakoa	Data: ___/___/___	Data: ___/___/___	Data: ___/___/___	Data: ___/___/___	Data: ___/___/___	Data: ___/___/___	Data: ___/___/___	Data: ___/___/___		
Azken hilabetean?	Data: ___/___/___	Ordua: ___/___/___	Ordua: ___/___/___	Ordua: ___/___/___	Ordua: ___/___/___	Ordua: ___/___/___	Ordua: ___/___/___	Ordua: ___/___/___	Ordua: ___/___/___		
1. Bai: Intentsitatea	1. Bai: Intentsitatea	1. Intentsitatea: _____	1. Intentsitatea: _____	1. Intentsitatea: _____	1. Intentsitatea: _____	1. Intentsitatea: _____	1. Intentsitatea: _____	1. Intentsitatea: _____	1. Intentsitatea: _____		
2. Ez	2. Ez	2. Iraupena: _____	2. Iraupena: _____	2. Iraupena: _____	2. Iraupena: _____	2. Iraupena: _____	2. Iraupena: _____	2. Iraupena: _____	2. Iraupena: _____		
		3. Tratamendua: _____	3. Tratamendua: _____	3. Tratamendua: _____	3. Tratamendua: _____	3. Tratamendua: _____	3. Tratamendua: _____	3. Tratamendua: _____	3. Tratamendua: _____		
24 ordu (1 ^o eguna)		32 ordu		40 ordu		48 ordu (2 ^o eguna)		56 ordu		64 ordu	
Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___	
Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___	
1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____	
2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____	
3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____	
72 ordu (3 ^o eguna)		4 ^o eguna		5 ^o eguna		6 ^o eguna		7 ^o eguna		8 ^o eguna	
Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___	
Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___	
1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____	
2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____	
3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____	
9 ^o eguna		10 ^o eguna		11 ^o eguna		12 ^o eguna		13 ^o eguna		14 ^o eguna	
Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___		Data: ___/___/___	
Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___		Ordua: ___/___/___	
1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____		1. Intentsitatea: _____	
2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____		2. Iraupena: _____	
3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____		3. Tratamendua: _____	

1. Intentsitatea: Eskala honetan, 0 "minik ez" eta 100 "Imajina daitezkeen minik okerrera" artean

Non dago denbora-tarte horretan hautemandako minik handiena?

2. Iraupena: Zenbat iraun du, minutu edo orduan, denbora-tarte horretan izandako minak?

3. Tratamendua: Denbora tarte horretan tratamendu analgesiko gehigarririk behar izan duzu? Ez edo Bai: Zein?

8. irudia. "UPV/EHU pain diary"¹⁴ minaren egunkaria, pazienteak bere min poskirurgikoaren ezaugarriak erregistratzeko diseinatua.

3.2.4. Aldagai erradiologikoa (hezur-maila erradiologikoa)

Aztertzaile kliniko berak (R.E.) jaso zuen tratatu beharreko hortzen hezur-maila erradiologikoa (HMRx), lortutako erradiografietatik abiatuta, ImageJ®¹⁴⁶ irudia prozesatzeko programaren bidez. Erradiografiak kalibratu ondoren, lerro zuzenean neurtu zen, idun-lerrotik hortz-arte hurbil- eta urrun-aldeko lehen hezur-kontaktura arteko distantzia milimetrotan.


3.2.5. Kronograma

Azterketa-aldia 12 hilabetekoa izan zen, eta 9 bisi-

ta egin ziren (hautaketa-bisita, hasierako aldagaiak erregistratzeko bisita, kirurgia, 7 eta 14 egunen buruan josturak kentzea, mantentzea eta aho-higiene indartzea 1, 3, 6 eta 12 hilabete prozedura amaitu eta gero). Parametro klinikoak hasieran, 6 eta 12 hilabetera erregistratu ziren, eta gertakari poskirurgikoak astera. Pazientearen pertzepzioak ebaluatu ziren, mina "UPV/EHU pain diary"¹⁴ minaren egunerokoaren bidez eta emaitza estetikoak IEA-an¹⁴⁵ oinarritutako galdetegi baten bidez.

Kronograma honela garatu zen (9. irudia):

1. Ezarritako barneratze eta baztertze irizpideen arabera, pazienteak hautatzea.
2. B0 (hasierako bisita): Hortz guztietan deskribatutako parametro klinikoak erregistratu zi-



9. irudia. Ikerketaren kronograma.

ren. Tratatu beharreko hortzen argazkiak (EOS 550D®, Canon Europa N.V., Amstelveen, Holanda) eta erradiografiak (VistaScan®, Dürr Dental SE, Bietigheim-Bissingen, Alemania) ere atera ziren. Azkenik, sentsibilizazio zentralerako galdetegi (SZG)¹⁴² egin zen, eta "UPV/EHU pain diary"¹⁴ betetzeari buruzko instrukzioak eman zitzaizkion pazienteari.

3. III. motako atzera-egite anizkoitzen kirurgia-ri ekin zitzaion, ausazkotze-sekuentziak islatutakoaren arabera: VISTA aldatua teknika (m-VISTA)¹⁴ edo koroalderantz birjarritako zintzilikarioaren teknika (KBZ)¹², biak ahosabaiko EKM-rekin batera.
4. Ebakuntza egin eta 7 egunera, ohandze emalearen josturak kendu ziren, eta gertakari postkirurgikorik gertatu ote zen jaso zen.
5. Ebakuntza egin eta 14 egunera, ohandze hartzailearen josturak kendu ziren, eta pazienteak betetako "UPV/EHU pain diary"¹⁴ minaren egunerokoa jaso zen.
6. Ebakuntza egin eta hilabetera, eta 3 hilabetera, euskarriko terapia periodontala eta aho-higienearen indartzea egin zen.
7. B1 (6 hilabeteko bisita): Hartz guztietan odoltea zundatzean eta bakterio-plakaren presentzia erregistratu ziren. Trataturako atzera-egite bakoitzean, gainera, zundaketa sakonera, hortzoiaren atzera-egitea, hortzoiaren atzera-egitearen zabalera, hortzoi keratinizatuaren zabalera eta ukipen-puntutik hortz-arterko papilarainoko distantzia neurtu ziren. Pazientearen aldetik emaitza estetikoa ere jaso zen, IEA-ren¹⁴⁵ bidez, eta ebakuntza eremuaren argazkiak atera ziren. Azkenik, euskarriko terapia periodontala egin zen, aho-higienearen indartzearekin batera.

8. B2 (12 hilabeteko bisita): Hartz guztietan odoltea zundatzean eta bakterio-plakaren presentzia erregistratu ziren. Trataturako atzera-egite bakoitzean, gainera, zundaketa sakonera, hortzoiaren atzera-egitea, hortzoiaren atzera-egitearen zabalera, hortzoi keratinizatuaren zabalera eta ukipen-puntutik hortz-arterko papilarainoko distantzia neurtu ziren. Pazientearen aldetik emaitza estetikoa ere jaso zen, IEA-ren¹⁴⁵ bidez, eta ebakuntza eremuaren argazkiak atera ziren. Azkenik, euskarriko terapia periodontala egin zen, aho-higienearen indartzearekin batera.

3.3. Datuen azterketa estatistikoa

- a. Esku-hartze aldagaia: Erabilitako teknika kirurgikoa, hau da, m-VISTA teknika (Test Taldea)¹⁴ edo KBZ teknika (Kontrol Taldea)¹², aldagai kategorikoa dena.
- b. Erantzun-aldagaiak:

Lehen mailakoa:

Erro-estalduraren batez besteko ehuneko (EE %): Paziente bakoitzean hasieran (HAEm_hasierakoa), 6 hilabetera (HAEm_6 hilabete) eta 12 hilabetera (HAEm_12 hilabete) zituen atzera-egiteen batez bestekoa kalkulatu zen. Ondoren, aldagai berriak kalkulatu ziren, EE %_6 hilabete $[(\text{HAEm_hasierakoa} - \text{HAEm_6 hilabete}) / \text{HAEm_hasierakoa} \times 100]$ eta EE %_12 hilabete $[(\text{HAEm_hasierakoa} - \text{HAEm_12 hilabete}) / \text{HAEm_hasierakoa} \times 100]$, ondoren Test Taldearen batez bestekoak Kontrol Taldekoarekin alderatzeko.

Bigarren mailakoak:

1. Teknika bakoitzarekin erro-estaldura osoa lor-

tu zen atzera-egiteen batez besteko ehunekoa (EEO %): Paziante bakoitzean, tratamendua egin ondoren 6 hilabetera (EEO_6 hilabete) eta 12 hilabetera (EEO_12 hilabete) erro-estaldura osoa erakutsi zuten atzera-egite kopurua erregistratu zen. Ondoren, aldagai berriak kalkulatu ziren, EEO %_6 hilabete [EEO_6 hilabete / TAEkop x 100] eta EEO %_12 hilabete [EEO_12 hilabete / TAEkop x 100] deiturikoak Test eta Kontrol Taldeentzat eta, azkenik, Kontrol Taldearen EEO %-ak Testarenekin alderatu ziren.

2. Teknika bakoitzerako intertzio-maila klinikoaren aldaketa (IMKa): 6 eta 12 hilabetera hura aldatu ote zen kalkulatu zen (IMKm_hasierakoa – IMKm_6 hilabete, IMKm_hasierakoa – IMKm_12 hilabete eta IMKm_6 hilabete – IMKm_12 hilabete), ondoren Test Taldeko atzera-egiteen batez bestekoak eta Kontrol Taldeko atzera-egiteen batez bestekoak alderatzeko.

3. Teknika bakoitzerako hortzoi keratinizatua- ren zabalaren aldaketa (HKZa): Hortz bakoitzean hortzoi banda keratinizatua- ren zabalera aldatu ote zen kalkulatu zen, 6 eta 12 hilabetera (HKZm_hasierakoa – HKZm_6 hilabete; HKZm_hasierakoa – HKZm_12 hilabete eta HKZm_6 hilabete – HKZm_12 hilabete), ondoren Test Taldeko atzera-egiteen batez bestekoak eta Kontrol Taldeko atzera-egiteen batez bestekoak alderatzeko.

4. Teknika bakoitzerako ukipen-puntutik hortz-arte-ko papilarainoko distantziaren aldaketa (UP-HPa): 6 eta 12 hilabetera hura aldatu ote zen kalkulatu zen (UP-HPm_hasierakoa – UP-HPm_6 hilabete; UP-HPm_hasierakoa – UP-HPm_12 hilabete eta UP-HPm_6 hilabete – UP-HPm_12 hilabete), ondoren bi tratamendu-talde- en atzera-egiteen batez bestekoak alderatzeko.

5. Teknika bakoitzerako pazientearen odoltze- indizearen aldaketa (Ola): 6 eta 12 hilabetera aldaketarik egon zen kalkulatu zen (Olm_hasierakoa – Olm_6 hilabete; Olm_hasierakoa – Olm_12 hilabete eta Olm_6 hilabete – Olm_12 hilabete), ondoren Kontrol Taldearen batez bestekoak Test Taldekoenekin alderatzeko.

6. Teknika bakoitzerako pazientearen plaka- indizearen aldaketa (Pla): 6 eta 12 hilabetera aldaketarik egon zen kalkulatu zen (Plm_

hasierakoa – Plm_6 hilabete; Plm_hasierakoa – Plm_12 hilabete eta Plm_6 hilabete – Plm_12 hilabete), azkenean Kontrol Taldearen batez bestekoak Test Taldekoenekin alderatzeko.

7. Pazientearen sentsibilizazio zentraleko maila klinikoa, sentsibilizazio zentraleko galdetegian (SZG)¹⁴² jasotakoa: Izaera kategorikoko aldagai, soilik hasieran jasoa, aldagai kuantitatibo gisa tratatu zen sentsibilizazio zentraleko maila klinikoko gradu bakoitzerako ehunekoa kalkulatu (subklinikoa, ertaina, moderatua, larria eta muturrekoa), eta Test eta Kontrol Taldeen arteko emaitzak alderatu ziren.

8. Pazienteak, IEA-an¹⁴⁵ oinarritutako “UPV/ EHU pain diary”¹⁴ minaren egunkariaren bidez, erregistratutako pertzepzioak (8. irudia): Bai min poskirurgikoaren intentsitate eta iraupe- nerako, bai hartutako analgesia kantitate eta denborarako, parametroentzat batez bestekoa kalkulatu zen bi taldeetarako. Horrela, Test Taldearen eta Kontrolaren arteko emaitzak alderatu ziren.

9. Pazienteak, teknika bakoitzerako, adierazi- tako emaitza estetikoarekiko gogobetetze- maila: IEA eskalarekin¹⁴⁵ 1-etik 100-era bitarteko puntuazioa lortzean, haren batez bestekoa kalkulatu zen. Horrela, 6 eta 12 hilabetera, Test Taldearen eta Kontrolaren arteko batez bestekoak alderatu ziren.

c. Erabilitako estatistika-analisiak zehaztea, alda- gaien izaeraren arabera:

1. Aldagai independentea: Aldagai kategori- koa (Test Taldea edo Kontrol Taldea).

2. Mendeko aldagaiak: Kuantitatibo jarraiak (erro-estalduraren batez besteko ehunekoa, hortzoi keratinizatua- ren zabalera, intertzio-maila klinikoa, atzera-egitearen zabalera, ukipen-pun- tutik hortz-arte-ko papilarainoko distantzia, IEA emaitza estetikoa, eta min poskirurgikoaren in- tentsitatea eta iraupena). Natura kategorikoko aldagaiak (sentsibilitate zentraleko maila, tra- tamendu analgesiko gehigarria, gertakari pos- kirurgikoak, plaka-indizea eta odoltze-indizea) aldagai kuantitatibo jarraietan bihurtu ziren ehunekoa kalkulatu.

d. Estatistikari eskarmentudun eta itsutu batek (X.M.) SPSS® softwarearen¹⁴⁷ bidez lortutako

datu guztiak aztertu zituen, analisi-unitate gisa pazienteak hartuta.

1. Hasieran aldagaiak estatistika deskribatzailearen bidez aztertu ziren:

a. Pazienteen kopurua.

b. Adinaren, PI-aren eta OI-aren, zundaketa sakoneraren, atzera-egiteen altueraren (HAE), atzera-egiteen zabalera, hortzoi keratinizatuaren zabalera, ukipen-puntutik hortz-arterko papilarainoko distantziaren eta hezur-maila erradiologikoaren, batez bestekoa eta desbideratze estandarrak.

c. Generoaren, tabako-ohituraren, drogen/alkoholaren kontsumoaren, gaixotasun sistematikoaren, medikazioaren, atzera-egiteen kokapenaren, sensibilizazio zentraleko maila klinikoaren eta ebakuntza aurreko azken hilabetearen eta berehalakoan min poskirurgikoaren presentziaren, ehunekoak.

2. Taldeak hasieran homogeneoak ziren egiaztatzen:

a. Aldagai kuantitatiboetarako, normaltasun-probak (Shapiro-Wilk) aplikatu ziren eta kutxa-diagramak egin ziren banaketa grafikoki baloratzeko: normaltasuna betetzen bazuten, test parametrikokoak erabili ziren, eta normaltasuna betetzen ez bazuten, test ez-parametrikokoak.

b. Aldagai kategorikoetarako, espero ziren maiztasunak ≥ 5 baziren Chi karratuaren Proba erabili zen, bestela Fisherren Proba zehatza aplikatu zen.

3. Talde-barruko konparazioa: Lehen mailako erantzunaren aldagaietarako (EE %) eta bigarren mailako aldagaietarako (EEO %, atzera-egitearen zabalera, hortzoi keratinizatuaren zabalera, zundaketa sakonera, hortzoiaren atzera-egitea, intsertzio-maila klinikoak, ukipen-puntutik hortz-arterko papilarainoko distantzia) konparazioa egin zen, lotutako laginetarako zeinua zuten heinen Wilcoxon probaren bidez.

4. Taldeen-arterko konparazioa: Mann-Whitneyren U-a erabili zen honako aldagai hauek alderatzeko (kuantitatiboak):

a. Atzera-egitea, atzera-egitearen zabalera, hortzoi keratinizatuaren zabalera, in-

tersertzio-maila klinikoak, IEA emaitza estetikoak, plaka-indizea, odolte-indizea, ukipen-puntutik hortz-arterko papilarainoko distantzia, Test eta Kontrol Taldeen artean, 6 eta 12 hilabetera.

b. Min poskirurgikoaren iraupena, intentsitatea (IEA)¹⁴⁵ eta honen aurreko tratamendu analgesiko gehigarriaren beharra; 2 eta 4 ordura, lehenengo 3 egunetan 8 ordutik behin eta ondoren, egunero astebetetz edo amaitu arte, Test eta Kontrol Taldeen artean.

5. Ebakuntzatik 6 eta 12 hilabetera lortutako erro-estalduraren batez besteko ehunekoaren eta jasotako minaren intentsitatearen arteko korrelazio posiblea aztertzea erlazionatuta egon litezkeen beste aldagai batzuekin. Horretarako, Spearman-en korrelazio-koefizientea, Mann-Whitneyren U-a edo Kruskal-Wallis-a aplikatu zen, aldagaiaren izaeraren arabera.

emaitzak

4.1. Estatistika deskribatzailea

4.1.1. Trataturako pazienteen ezaugarriak

6. taulan ebakuntza jaso duten pazieenteen ezaugarri orokorrak jasotzen dira.

12 paziente ikertu ziren Test Taldean [55,26 urte (DE: 7,89) [42-73]; 8 emakume] eta 12 paziente Kontrol Taldean [51,16 urte (DE: 10,37) [31-63]; 6 emakume].

Test Taldean pazienteek inolako ohitura toxikorik aipatzen ez zuten arren, Kontrol Taldean pazienteen % 25-ak (zk.= 3) egunean 10 zigarreta baino gutxiago erretzen zituztela eta % 33,30-ak (zk.= 4) drogen eta/edo alkoholaren kontsumitzaile zirela adierazi zuten.

Test Taldean, gaixoen % 50-ak gaixotasun sistemikoren bat zuen eta % 25-ak Kontrol Taldean.

Gainera, Test Taldeko pazienteen % 41,70-ak (zk.= 5) eta Kontrol Taldeko pazienteen % 33,30-ak (zk.= 4) azken hilabetean buruko eta lepoko min prekirurgikoa izan zutela adierazi zuten ($p=1,00$). Ebakuntza kirurgikoaren aurreko unean minaren presentzia, Test Taldeko pazienteen % 16,67-ak (zk.= 2) eta Kontrol Taldeko pazienteen % 8,33-ak (zk.= 1) adierazi zuten ($p=1,00$). Hala, minaren batez besteko intentsitatea, 17,5-ekoa (DE: 23,79) eta 10-ekoa (DE: 15,37) izan zen prozedura kirurgikoaren aurreko hilabetean ($p=0,55$), eta 5-ekoa (DE: 11,68) eta 1,67-koa (DE: 5,77) ebakuntzaren aurreko momentuan ($p=0,71$), Test eta Kontrol Taldean, hurrenez hurren.

Paziente gehienek, guztiak gizonak, sensibiizazio zentraleko maila kliniko subklinikoa¹⁴² ($t=$ % 83,30 vs. $k=$ % 75,00) eta inork ez maila larria edo muturrekoa erakutsi zuten. Aldiz, Test Taldeko 2 emakumeek (% 16,70), bat fibromialgiatz diagnosticatua, sensibilizazio zentraleko maila moderatua min prekirurgikoaren presentziarekin izan zuten, Kontrol Taldeko inork ez zuelarik izan.

Taldeak hasieran alderatzean, ez ziren diferentzia estatistikoki esanguratsurik antzeman.

4.1.2. Tratutako hortzoien atzera-egiteen ezaugarriak

Tratutako Miller-en III. motako atzera-egiteen ezaugarriak 7. taulan jaso dira.

Bi taldeetan tratutako atzera-egite gehienak barrailan zeuden ($t= 36$ vs. $k= 29$; $p= 1,00$) eta, Test Taldean, atzeko hortzetako atzera-egite kopurua handiagoa zen (aurreko haginak; $t= 19$ vs. $k= 17$ / haginak; $t= 5$ vs. $k= 3$).

Hasierako parametro kliniko bakar batek ere, barneratutako hortzoien atzera-egiteen ezaugarri dagokienak, ez zuen bi ikerketa taldeen artean diferentzia estatistikoki esanguratsurik aurkeztu. Hala ere, apur bat handiagoak izan ziren Kontrol Taldean zundaketaren sakonerarekiko ($t= 1,75$ mm vs. $k= 1,89$ mm), hortzoien atzera-egitearekiko ($t= 2,85$ mm vs. $k= 3,32$ mm), intsertzio-mailaren galerarekiko ($t= 4,60$ mm vs. $k= 5,22$ mm) eta ukipen-puntutik hortz-arteke papilarainoko distantziarekiko ($t= 2,10$ mm vs. $k= 2,64$ mm). Hala ere, atzera-egitearen zabalera ($t= 4,08$ mm vs. $k= 3,57$ mm), hortzoi keratinizatuaren zabalera ($t= 2,71$ mm vs. $k= 2,50$ mm) eta hezur maila erradiologikoa ($t= 4,18$ mm vs. $k= 4,12$ mm) handiagoak izan ziren Test Taldean.

4.1.3. Ezaugarri intrakirurgikoak

Lortutako ahosabaiko ehun konektibozko mentuaren (EKM) ezaugarriak soilik aztertu ziren, 8. taulan azaltzen direnak.

Lorturiko EKM-aren neurriak, bere luzeran ($t= 28,88$ mm vs. $k= 26,35$ mm) eta bere zabalera ($t= 7,44$ mm vs. $k= 6,95$ mm) Test Taldean zertxobait handiagoak izan ziren, lodieran ($t= 2,36$ mm vs. $k= 2,61$ mm) Kontrol Taldean handiagoa izan zen bitartean.

Bi taldeetako ebakuntza jakin batzuetan, tratatu beharreko eremuaren luzera dela eta, beharrezkoa izan zen EKM akordeoi moduan hedatzea (e-MCTG)¹³⁷, gehiagotan Test Taldeko pazienteen artean ($zk.= 8 / 12$) Kontrol Taldekoetan baino ($zk.= 6 / 12$).

Ez zen ezberdintasun estatistikoki esanguratsurik egon, ezaugarri intrakirurgiko bakar batean ere, Kontrol eta Test Taldearen artean.

4.2. Estatistika analitikoa

6 hilabetera eta 12 hilabetera erregistratutako datuak 9. eta 10. tauletan azaltzen dira, hurrenez hurren. Gainera, 11. taulan, aldagai ezberdinen artean eta datuak biltzeko une ezberdinen artean gertatutako aldaketak islatzen dira.

Jarraipen-aldian zehar, 2 paziente galdu ziren Test Taldean, bat bi bisitetan (Covid-19-ak sortutako egoeraren aurrean datuak biltzeko ezintasuna, osasun arazo batez gain) eta beste bat urteko bisitan (ezin izan zen pazientearekin harremanetan jarri).

4.2.1. Lehen mailako erantzun aldagaia: Erro-estalduraren batez besteko ehunekoa (EE %)

EE %, 6 hilabetera, % 61-a izan zen bi taldeentzat [$t= \% 61,59$ (%95-eko KT; 44,64-tik 78,54-ra) vs. $k= \% 61,73$ (%95-eko KT; 42,48-tik 80,97-ra); $p= >0,05$]. Hala ere, 12 hilabetera, EE % Test Taldean % 73,26-ra igo zen (%95-eko KT; 56,36-tik 90,17-ra), batez besteko erro-estaldurak 2 milimetroak zertxobait gaintuz, aldiz, EE % Kontrol Taldean % 56,49-ra jaitsi zen (%95-eko KT; 37,90-etik 75,10-era), taldeen arteko alde hori estatistikoki esanguratsua izan gabe ($p= 0,20$).

Test Taldean korrelazio lineal negatiboa lortu zen, 6 hilabeteko EE %-aren eta hezur-maila erradiologikoaren (batez bestekoa: $r= -0,68$; $p= 0,02$ / hurbila: $r= -0,71$; $p= 0,014$ / urruna: $r= -0,67$; $p= 0,03$) artean, eta 12 hilabeteko EE %-aren eta hasierako ukipen-puntutik hortz-arteke papilarainoko distantziaren (batez bestekoa: $r= -0,702$; $p= 0,02$ / hurbila: $r= -0,65$; $p= 0,04$ / urruna: $r= -0,74$; $p= 0,01$) eta urrun-aldeko hezur-maila erradiologikoaren ($r= -0,64$; $p= 0,05$) artean. Aldiz, Kontrol Taldean korrelazio lineal positiboa ikusi zen, 6 hilabeteko ($r= 0,65$; $p= 0,02$) eta 12 hilabeteko ($r= 0,59$; $p= 0,04$) EE %-aren eta erabilitako EKM-aren zabalera artean, eta korrelazio lineal negatiboa plaka-indizearekin ($r= -0,81$; $p= 0,001$) eta odol-tze-indizearekin ($r= -0,64$; $p= 0,02$) 6 hilabetera.

Erabilitako teknika kirurgikoa kontuan hartu gabe, hau da, atzera-egite guztiak bere osotasunean har-

tuta, korrelazio lineal negatiboa erregistratu zen 6 hilabeteko EE %-aren eta hezur-maila erradiologikoaren (batez bestekoa: $r = -0,51$; $p = 0,01$ / hurbila: $r = -0,46$; $p = 0,03$ / urruna: $r = -0,47$; $p = 0,02$) eta 6 hilabeteko plaka-indizearen ($r = -0,45$; $p = 0,03$) artean, eta era berean 12 hilabeteko EE %-aren eta batez besteko hasierako atzera-egitearen ($r = -0,47$; $p = 0,03$) eta hasierako ukipen-puntutik hortz-arteko papilarainoko distantziaren (batez bestekoa: $r = -0,44$; $p = 0,04$ / urruna: $r = -0,45$; $p = 0,04$) artean.

4.2.2. Bigarren mailako erantzun aldagaiak

4.2.2.1. Erro-estaldura osoaren batez besteko ehunekoa (EEO %)

6 hilabetera, Test Taldeko paziente batek eta Kontrol Taldeko bi pazienteek baino ez zuten EEO agertu trataturiko atzera-egite guztietan, aldiz, pazienteen % 54,54-ak (zk.= 6 / 11) eta % 58,33-ak (zk.= 7 / 12) EEO-rekin atzera-egiteren bat izan zuten Test eta Kontrol Taldean, hurrenez hurren. Era berean, guztiz estali ziren atzera-egiteen batez besteko ehunekoa pixka bat txikiagoa izan zen Test Taldean % 31,71-arekin (zk.= 13 / 41), % 36,67-arekin (zk.= 14 / 40) alderatuta Kontrol Taldean.

Aitzitik, 12 hilabetera, EEO %-ak nabarmen egin zuen gora Test Taldean (3 pazienteek atzera-egite guztiak estalita, pazienteen % 60-ak atzera-egiteen bat estalita; zk.= 6 / 10, eta atzera-egiteen % 47,33-a estalita; zk.= 17 / 36), eta murriztu egin zen Kontrol Taldean (paziente 1-ek atzera-egite guztiak estalita, pazienteen % 50-ak atzera-egiteen bat estalita; zk.= 6 / 12, eta atzera-egiteen % 29,45-a estalita; zk.= 11 / 40).

Bi jarraipen-denboretan, ez zen diferentzia estatistikoki esanguratsurik egon bi ikerketa taldeen artean, ez pazienteari zegokionez, ez atzera-egiteari zegokionez.

4.2.2.2. Intsertzio-maila klinikoa (IMK)

6 hilabetera, bi tratamendu taldeek intsertzio-maila klinikoren galera bat aurkeztu zuten ($t = 2,87$ mm vs. $k = 3,37$ mm; $p = 0,61$).

12 hilabetera, galera hori 2,43 mm-ra jaitsi zen Test Taldean, aldiz, 3,47 mm-ra igo zen Kontrol Taldean. Hau izan zen azterlanean, bi tratamendu taldeen artean, aurkitutako diferentzia estatistikoki esanguratsu bakarra ($p = 0,04$).

4.2.2.3. Hortzoien atzera-egitearen zabalera (HAEZ)

Test Taldean, HAEZ-ren murrizketa hasierarekiko, 6 hilabetera [$t = -2,17$ mm (DE: 1,25) vs. $k = -1,01$ mm (DE: 1,40); $p = 0,08$] eta urtebetera [$t = -2,78$ mm (DE: 1,78) vs. $k = -1,26$ mm (DE: 1,07); $p = 0,06$] handiagoa izan zen, taldeen artean diferentzia estatistikoki esanguratsurik hauteman gabe.

4.2.2.4. Hortzoi keratinizatuaren zabalera (HKZ)

6 hilabeteren buruan, bi taldeetan, hortzoi keratinizatuaren irabazia 1 mm baino txikiagoa izan zen ($t = 0,85$ mm vs. $k = 0,68$ mm; $p = 0,65$), urtera al daketa txikiekin mantendu zena, bi taldeen arteko diferentzia estatistikoki esanguratsurik ikusi gabe.

4.2.2.5. Ukipen-puntutik hortz-arteko papilarinoko distantzia (UP-HP)

6 hilabetera, hasierako neurriarekin alderatuta, Test Taldean murrizketa (hortz-arteko espazioan papilarin gehikuntza) estatistikoki esanguratsu bat egon zen ($p = 0,02$) ukipen-puntutik hortz-arteko papilarinoko distantzian, bai hurbilean ($t = -0,85$ mm vs. $k = -0,49$ mm), bai urrunean ($t = -0,73$ mm vs. $k = -0,24$ mm), diferentzia estatistikoki esanguratsua izan gabe ikerketa-taldeen artean.

12 hilabetera, Test Taldean distantzia hau ia hasierako balioetara itzuli zen, 6 eta 12 hilabete bitar-

tean distantzia honen handitzea estatistikoki esanguratsua izanik ($p=0,01$). Aldiz, Kontrol Taldean, lortutako murrizketa antzeko mantendu zen, aldaketa txikiekin. Halaber, ez dugu diferentzia estatistikoki esanguratsurik ikusi taldeen artean.

4.2.2.6. Plaka- eta odolte-indizeak (PI / OI) zundaketan

Bi indizeak, Test Taldean, bai 6 hilabetera (PI ; $t=14,67$ vs. $k=24,58$ / OI ; $t=8,96$ vs. $k=13,46$), bai urtera (PI ; $t=15,86$ vs. $k=20,49$ / OI ; $t=8,83$ vs. $k=12,71$), Kontrol Taldean baino txikiagoak izan ziren, diferentziak estatistikoki esanguratsuak izan gabe.

4.2.2.7. Gertakarik poskirurgikoak (GPK)

Ebakuntza jaso zuen paziente bakoitzean izandako gertakari poskirurgikoak 8. taulan jasotzen dira.

6 pazienteren kasuan, bai Test Taldean, bai Kontrol Taldean, GPK-ren bat gertatu zen (aurpegiko hematoma; $zk.=1$ vs. $zk.=2$ / aftak; $zk.=2$ vs. $zk.=1$ / ahosabai-ko ohandzearen nekrosia; $zk.=2$ vs. $zk.=2$ / zintzilika-rioren nekrosi partziala; $zk.=0$ vs. $zk.=1$ / mentua- ren nekrosi partziala; $zk.=0$ vs. $zk.=1$ / hemorragia poskirurgikoa; $zk.=1$ vs. $zk.=0$), hurrenez hurren.

4.2.2.8. "UPV/EHU pain diary"¹⁴ minaren egunkariaren bidez jasotako min poskirurgikoa eta beste aldagai batzuekin izan dezakeen erlazioa

Minari lotutako aldagaiak 8. taulan jasotzen dira. Test Taldean ebakuntzaren ondoren, minaren batez besteko intentsitatea (MI) ($t=11,19$ vs. $k=8,10$) eta iraupena (Mlr) ($t=25,27$ minutu vs. $k=10,34$ minutu) handiagoak izan ziren, nahiz eta bakarrik estatistikoki esanguratsuak izan ziren ebakuntzatik 2 ordura (MI eta Mlr; $p=0,001$) eta 8 ordura (MI; $p=0,045$ / Mlr; $p=0,010$) (10. eta 11. irudiak).



10. irudia. Pazienteek, "UPV/EHU pain diary"¹⁴ minaren egunkariaren bidez, jasotako min poskirurgikoaren intentsitatea.



11. irudia. Pazienteek, "UPV/EHU pain diary"¹⁴ minaren egunkariaren bidez, jasotako min poskirurgikoaren iraupena, minututan.

Halaber, Test Taldean, behar analgesikoaren batez besteko denbora ($t= 63,58$ minutu vs. $k= 53,25$ minutu; $p= 0,27$) handiagoa izan zen. Hala ere, "UPV/EHU pain diary"¹⁴ minaren egunkarian erregistratutako analgesiko-hartzea Kontrol Taldean bi aldiz baino gehiagotan gauzatu zen ($t= 15$ vs. $k= 38$), diferentziak estatistikoki esanguratsua izan gabe. Gainera, Test Taldeko paziente bakar batek, miaketaren bi unetan baino gehiagotan analgesiko-hartzeren bat izan zuela adierazi zuen, aldiz Kontrol Taldean 6 paziente izan zirelarik.

MI-ak beste aldagai batzuekin izan zezakeen erlazioa aztertzean, korrelazio lineal positiboa ikusi zen lortutako EKM-aren luzerarekin, bai Kontrol Taldean ($r= 0,619$; $p= 0,032$), bai ebakuntza jaso zuten paziente guztietan ($r= 0,418$; $p= 0,042$). Halaber, MI eta droga-kontsumoaren eta/edo alkoholaren arteko lotura bat ikusi zen azterlanaren paziente guztiak aztertzean ($p= 0,023$).

Hala ere, ez zen MI-aren eta pazienteek aurkeztutako sentsibilizazio zentralerako maila klinikoaren¹⁴² arteko erlazio estatistikorik aurkitu.

4.2.2.9. Emaiza estetikoarekiko gogobetetze-maila

Jasotako gogobetetze-maila altua izan zen, bai 6 hilabeteko ($t= 82,18$ vs. $k= 78,33$), bai 12 hilabeteko ($t= 83,80$ vs. $k= 80,75$) jarraipenean, 80 zenbakiaren ingurukoa izanik bi taldeetan. Ez zen diferentzia estatistikoki esanguratsurik antzeman bi taldeen artean.



eztabaida

Miller-en III. motako hortzoiaren atzera-egiteen tratamenduan erabiliak diren, bi teknika kirurgiko muko-gingibal alderatzeko helburuarekin (m-VISTA¹⁴ vs. CAF¹²), ausazko entsegu kliniko hau diseinatu zen.

Hortzoiaren atzera-egiteak zituzten pazienteen lagina lortzeko Miller-en sailkapena⁴ erabili zen, ikerketaren hasieran indarrean zegoena zena eta osoena kontsideratzen zena, zeren eta ehun bigunez gain inguruko hezurra eta hortzaren posizioa ere kontuan hartzen dituelako, erro-estalduran ere garrantzitsuak direnak. Horrela, espezifikoki Miller-en III. motako hortzoiaren atzera-egiteak hautatu ziren, gaur egungo Cairo-ren RT2-ari⁵ legozkiekeenak.

Gainera, literaturan jasotako dudak erantzuten saiatuz, orain arte atzera-egite mota honen tratamenduan zegoen ebidentzia handitzeko eta bi teknika kirurgiko alderatzeko helburuarekin¹⁵, horietako bat (kontrol teknika; KBZ¹²) kirurgia plastiko periodontalean erreferentea dena, VISTA teknikaren¹³⁶ aldaketa batekin alderatuz, m-VISTA¹⁴ deitu duguna.

5.1. Aztertutako biztanleriaren ezaugarriei dagokienez

Azterlanaren lagin orokorra, antzeko ikerketa gehienetan bezala, gehiengoaren femeninoa izan zen (14 emakume vs. 10 gizon). Izan ere, kolektibo honek, arreta odontologiko handiagoa eskatzeaz gain¹⁴⁸, interes handiagoa erakusten baitu bere estetikagatik¹⁴⁹, hau kirurgia plastiko periodontalaren argibide nagusietako bat izanik.

Bi ikerketa taldeak aztertzean, hasieran nahiko homogeneoak izan ziren, haiek aurkeztutako ezaugarri orokor bakar batean ere ez dugularik diferentzia estatistikoki esanguratsurik ikusi. Hala ere, Test Taldean, Kontrol Taldean baino, 2 emakume gehiago zeuden (t= % 66,70 vs. k= % 50) eta batez besteko adina zertxobait handiagoarekin (t= 55,26 urte [41-73] vs. k= 51,16 urte [31-63]). Gainera, talde horretako pazienteek faktore sistemiko gehiago zituzten, hala nola gaixotasun sistemikoren baten presentzia (t= % 50 vs. k= % 25), medikazioa hartzea (t= % 33,30 vs. k= % 16,70), min prekirurgikoaren presentzia azken hilabeteetan (t= % 41,70 vs. k= % 33,30) eta tratamendu kirurgikoaren aurreko berehalakoan (t= 16,70 % vs. k= 8,30 %), eta sentsibili-

tate zentraleko maila kliniko moderatua ($t= 16,70\%$ vs. $k= 0\%$). Aldiz, Kontrol Taldean ohitura toxikoei dagokionez, desberdintasunak ikusi genituen tabakoaren kontsumoan ($\% 25$) eta drogen edo alkoholaren kontsumoan ($\% 33,30$), besteak beste.

Literaturan ez dago daturik pazientearen baldintza hauek, hala nola adina, generoa eta gaixotasun sistemikoen presentzia, kirurgia mukogingibaleko prozeduretan lortutako erro-estalduraren emaitzetan eragina izan dezaketarik⁸². Hala ere, pentsa liteke, ehunen orbaintzea atzeratuko edo zailduko duten ezaugarri guztiek ahalik eta erro-estaldura handiena lortzean eragina izan dezaketela. Horregatik, uste dugu mota hauetako prozedura terapeutikoetan, faktore horiek duten eraginari buruzko ikerketa gehiago beharrezkoak direla.

5.2. Tratutako atzera-egiteen ezaugarriei dagokienez

Pazienteei buruzko datuak ematea garrantzitsua bada ere, atzera-egitei buruzko informazioa ere ematea beharrezkoa da, izan ere hauen ezaugarriek eta kokapenak erraz edo zail bailezakete lor litekeen erro-estaldura.

Ikerketa honetan aztertutako Miller-en III. motako 84 atzera-egite anizkoitzen gehiengoa barailan aurkitzen ziren ($\% 76,47$) eta erdia baino gehiago atzeko sektoreetan (aurreko haginak $\% 42,86$; zk.= 36 / haginak $\% 9,52$; zk.= 8). Lokalizazio mota hauek erro-estaldura osoa lortzeko zailtasun handiagoa dute^{55,57}.

Orain arte, ausazko entsegu kliniko gutxi^{71,125} tratatu dituzte Miller-en III. motako atzera-egite anizkoitzak gutxienez urtebeteko jarraipenarekin, gure azterlanean gertatzen den bezala. Azterlan horietan^{71,125} trataturiko atzera-egiteen ezaugarriak gurekin alderatzean, Mercado *et al.*-ek¹²⁵ barailaren aurreko sektorean aurkitutako atzera-egiteak baino ez zituzten tratatu eta Aroca *et al.*-ek⁷¹ barailako $\% 50$ atzera-egite tratatu zituzten, gure ikerketaren datuekin alderatuta $\% 76,47$ -rekin barailan, 8 hagin barne. Atzera-egitearen batez besteko luzerari dagokionez, gure ikerketan txikiagoa izan zen ($3,10$ mm) Mercado *et al.*-en¹²⁵ azterlanean lorturikoa baino ($5,61$ mm), eta hortzoi keratinizatu txikia-

goarekin ($1,74$ mm vs. $2,60$ mm), diferentzia hauek atzera-egiteen barail-aurreko kokapenaren ondorio izan daitezkeela pentsatzen dugularik. Aroca *et al.*-en⁷¹ ikerketari dagokionez, non barneratutako atzera-egiteen parametro klinikoak geureen nahiko antzekoak izan ziren, atzera-egiteen batez besteko zabalera pixkat altuagoa izan zen ($3,83$ mm vs. $3,70$ mm) eta txikiagoa, atzera-egitearen batez besteko luzera ($3,10$ mm vs. $3,35$ mm) eta ukipen-puntutik hortz-arterko papilarainoko distantzia ($2,37$ mm vs. $2,8$ mm).

Esteibar *et al.*-en⁶⁷ ikerketak bakarrik hezur-maila erradiologikoa erregistratu zuen, interesgarria izan litekeen parametroa hortz-arterko ehun bigunaren euskarria aztertzeko orduan, izan ere, papilatik ukipen-punturaraino dagoen distantzia bera izan arren, hezurra bere posizioan aldatu daiteke. Gainera, parametro honek erro-estalduraren emaitzean eragin lezake, batez ere papilaren koroalderantzko mobilizazioan oinarritzen diren prozeduretan, gure Test Taldean erabili dugun m-VISTA¹⁴ teknikaren kasuan bezala.

Hasieran, ez dugu diferentzia estatistikoki esanguratsurik aurkitu azterlanean barneratutako atzera-egiteen artean bi tratamendu taldeetan. Gaur egungo ebidentziaren arabera, hainbat faktorek eragiten dute Miller-en III. motako atzera-egiteen⁹³ erro-estalduraren batez besteko ehunekoan, hala nola: kokapenak^{55,57}, atzera-egitearen zabalera eta altuera ezaugarriak^{15,63} edo hortz-arterko papilaren posizioak eta osotasunak^{67,71}. Faktore hauen arabera, emaitza gutxi gorabehera lagungarriagoak espero ditzakegu. Gure azterlanean aldagai hauek aztertuz, Kontrol Taldean barneratutako atzera-egiteak ezohikoagoak zirela ikusi dezakegu, bai beheko masailazurrean ($t= 36$ vs. $k= 29$), bai haginaren ($t= 5$ vs. $k= 3$) eta aurreko haginaren eremuan ($t= 19$ vs. $k= 17$), talde horren emaitzetan eragina izan zezakeelarik. Bestalde, hasierako beste ezaugarri batzuk, hala nola atzera-egitearen batez besteko sakanerak ($t= 2,85$ mm vs. $k= 3,32$ mm), ukipen-puntutik hortz-arterko papilarainoko batez besteko distantziak ($t= 2,10$ mm vs. $k= 2,64$ mm) eta hortzoi keratinizatuaren batez besteko zabalera ($t= 2,71$ mm vs. $k= 2,50$ mm), Test Taldearen emaitzetan ere lagungarri izan zezaketen.

5.3. Erabilitako teknika kirurgikoei dagokienez

Ebakuntza guztiak UPV/EHU-ko Periodontiza eta Osteointegratioko Master-ean egin ziren, emaitzak jokabide honen arabera izanik⁸⁶. Hala ere, baldintza berberetan egindako bi teknika kirurgiko alderatzea helburu duen entsegu klinikoa denez, baliteke puntu hau hain garrantzitsua ez izatea.

Aurretiazko argitalpenetan, Miller-en III. edo RT2 motako atzera-egiteen tratamenduan erabiltzen diren kirurgia plastiko periodontaleko teknikak ez dira, hain konplexuak ez diren hortzoiaren atzera-egiteen tratamenduan erabiltzen direnen ezberdinak, hala nola Miller-en I. / II. edo RT1 motakoak, koroalderantz birjarritako zintzilikario teknikak (KBZ) eta tunel teknikak (TT) azken hamarkadetan maiz aplikatu direnak izanik^{15,93} (12. taula).

Horrela, defektu horiek tratatzeko zein teknika kirurgiko alderatu aukeratzeko orduan, Miller-en III. motako atzera-egite anizkoitzen tratamendurako gehien erabiltzen diren bi teknikak (bat TT eta bat KBZ) aukeratu ziren. Alde batetik, koroalderantz birjarritako zintzilikario tekniken barruan, orain arte atzera-egite anizkoitzen tratamendurako gehien erabili dena hautatu zen^{15,93}, Zucchellik eta De Sanctis-ek¹² deskribatutako teknika. Teknika hori, klinikoen artean hain zabaldua erabiltzeko arrazoietako bat, zintzilikarioaren koroalderantzko desplazamendu zabala egiteko aurkezten duen erraztasuna da. Bestalde, tuneleko ebakuntzen barruan prozedura mota aukeratzeko orduan, teknika eta aldaketa asko zeuden gure azterlana planteatu aurretik baloratu zirenak. Hala, proposatutako teknika ezberdinen eragozpenak eta abantailak aztertu genituen, hala nola: VISTA teknika¹³⁶, koroalderantz birjarritako tunel teknikak^{71,150} edo tunel teknikak¹⁵¹. Azkenik, VISTA teknikaren¹³⁶ alde egin genuen gainerako tunel tekniken aldean dituen abantailengatik^{71,150,151}, izan ere, a priori, ebaki bertikal bat duen tunel bat prestatzea errazagoa baita teknikoki. Gainera, teknika honi zenbait aldaketa egin zitzaizkion, VISTA aldatua (m-VISTA)¹⁴ teknika deitu dioguna garatuz. Teknika aldatu honen helburua onura gehigarriak ekartzea da, hala nola: kirurgia-denbora murriztea, hortz-artereko konposite-puntuak ohantze kirurgikoa prestatu aurretik eginez. Badakigu denbora intra-kirurgikoa eragina duela orbaintzean eta, beraz,

erro-estalduraren emaitzetan, bai eta pazientearen egoera posoperatorioan ere^{152,153}. Era berean, egindako ebaki bertikalak lerro mukogingibala pixka bat zeharkatzea ezarri genuen, hortzoi txertatuaren mailan zintzilikarioa errazago presta zedin, mugiaraztea zailagoa den gunea baita. Halaber, papiletara zabaldutako ildo-barneko ebakiak egiten ditugu, zintzilikario-EKM-papila konplexu osoa koroalderantz mugitu ahal izateko helburuarekin. Gure ustez, papilaren koroalderantzko trakzioak mentuaren maila marjinallean baskularizazio handiagoa ekar lezake, hortz-artereko mailan konpromiso egoera batetik abiatzen baikara. Bestalde, ertz-gingibalaren azpian dagoen konektibozko mentuak egonkortasun handiagoa eman lezake, erro-estalduran emaitza hobek lortzeko aukerarekin¹⁵⁴. Gainera, tratatu beharreko atzera-egiteen ukipen-puntu hurbilen eta urrunen gainean jostura bertikal bikoitz-gurutatuak¹³⁸, alde aurretik konpositearekin itxitakoak, ertz-gingibalaren trakzio bikoitz osoa ziurtatzen dute, jostura bakar baten mende egon gabe¹⁴.

Bi teknikekin batera ahosabaiko EKM bat jarri zen, prozedura mota hauetan aukerako ("*gold standard*") mentu-materiala kontsideratzen dena¹⁵. Ikerlana diseinatzerakoan, mentuaren lodiera gutxi gorabehera 2 mm-koa izatea proposatu zen, izan ere, ordura arte literaturak mota honetako mentuak bermatzen baititu Miller-en III. motako atzera-egiteak tratatzeko^{67,91}. Hala ere, gure azterlanean barneratutako paziente guztietan ezin izan zen mentu-lodiera hau [1,28-4,15 cm] lortu, beraine ahosabaiek aurkezten zizuten muga anatomikoengatik. Zailtasunak zailtasun, gure helburua beti mentu ahalik eta lodiena lortzen saiatzea izan da, zeren eta Miller-en III. motako atzera-egiteetan, badirudi mentu lodi baten heltzeak ertz-gingibalaren koroalderantzko desplazamendu handiagoa lortzen lagundu dezakeela, eta, horrela, ahalik eta erro-estaldura handiena lor genezake^{67,91}, bereziki zenbait faktorek bat egiten dutenean, hala nola 2 mm-tik gorako mentu-lodiera batek, papilaren osotasun eta hortz-artereko galera baten edo 3 mm-tik beherako hasierako atzera-egite batekin batera⁶⁷. Hau argitu beharreko alderdi eztabaidagarria da, izan ere, beste autore batzuek^{71,92,111,155} beraren baskularizazioa erraztuko luketen mentu finak erabiltzearen alde egiten duten, eta horrela, erro-estalduraren emaitza hobek lortu, nahiz eta literaturan ez dagoen argi eta garbi zehaztuta mentua fina edo lodia izan behar duen.

Halaber, ahalik eta mentu luzeena lortzen saiatu gara [15,60-28,54 cm], pazientearen muga anatomikoak errespetatuz, ondoan edo elkarrengandik urrun egon zitezkeen hortzoi atzera-egite guztiak estali ahal izateko helburuarekin. Hau ezinezkoa izan zen kasuetan, EKM-aren luzera sare hedatuaren prozedura erabiliz (e-MCTG)¹³⁷ handitu zen. Puntu honetan, beste autore batzuk^{154,155} ez dotoz bat atzera-egite guztien azpiko ehun konektibozko mentu bat kokatzeko beharrarekin, izan ere haien zat nahikoa litzateke hortzoi keratinizatu marjinalaren altuera eta zabalera murriztua duten kokalekuetan bakarrik jartzea. Espero izatekoa da mentu txikiak hartzeak, ahosabaian mentu bat hartze berak dakarren morbiditatea murriztu dezakeela, pazienteentzat ondorio klinikoak dituena. Hala ere, egoera hau sakon ikertu behar da, izan ere, min poskirurgikoaren intentsitatearekin eta iraupenarekin pazienteen hasierako beste patologia edo egoera batzuk lotu baiditezke, gure ezagutzara arte, kirurgia mukogingibaleko prozedurei lotutako min poskirurgikoan kontuan hartu ez direnak. Neurri txiki-mentu batek onura ekar dezakeen arren, esan behar dugu tunel prozedura batean, erabilitako teknika edozein dela ere, atzera-egite konkretu batean mentua era zehatz eta isolatuan kokatzea zaila izan daitekeela, eta batzuetan ia ezinezkoa ere bai, eta operatzailearen aldetik trebetasun kirurgiko handia beharko lukeena.

Aurreko guztiagatik, ondoriozta daiteke ikerkuntza periodontalak bai aztertzen duela EKM-ren lodierak eta luzerak zer eragin izan dezakeen tratatu beharreko hortzoiaren atzera-egiteen erro-estalduran, aldiz, ez du zehazten zein EKM-ren zabalera beharko litzatekeen hortzoiaren atzera-egiteen erro-estalduraren emaitza egokiak lortzeko.

Era berean patologia honetan hainbat aukera erabili dira ehun konektibozko mentuari, hala nola ehun konektiboaren ordekoak deiturikoak, horien artean matrize dermiko azelularra^{86,100,110,112,116,129,130} eta kolageno xenogeniko matrizea^{115,129}, kolagenekoak^{101,121,122,130} izan daitezkeen mintz birxurgagarriak edo PRF-koak¹⁰⁹, plaketetik eratorritako hazkunde-faktoreak, hala nola GEM21S®^{116,124,129}, eta esmalmetik eratorritako proteinak (Emdogain®)^{40,71,84,96,108,119,125} (5. taula). Biomaterial hauen helburua erro-estalduraren emaitza hobekien lortzen saiatzea eta prozedura klasikoenei lotutako morbiditatea poskirurgikoa murriztea da, mentua hart-

zeko bigarren kirurgia-gune bat alde batera utzita⁹³.

Mota honetako atzera-egite anizkoitzetan egindako hainbat entsegu klinikok^{71,124,125} aztertu dute ea faktore aldatzailearen bat jartzeak, hala nola plaketetik eratorritako hazkunde-faktoreek¹²⁴ edo esmalmetik eratorritako proteinek^{71,125}, ehun konektibozko mentuari gehitzeak onura gehigarriaren bat dakarren. Ikerketa hauen emaitzek adierazten dute ez dagoela atzera-egite anizkoitzetan erro-estaldura handiagoa lortzeko izan dezaketen onuraren adostasunik, beraz, atzera-egite mota hauetan beraien erabilpena aholkatu aurretik, ikerketa gehiago egin beharko lirateke.

5.4. Lorturiko erro-estalduraren batez besteko ehunekoari (EE %) dagokionez

Bi tratamendu talde horietan lortu dugun erro-estalduraren batez besteko ehunekoak, bai 6 hilabetera (t= % 61,59 vs. k= % 61,73), bai 12 hilabetera (t= % 73,26 vs. k= % 56,49), aurreko ikerketetan deskribatutako tartearen barruan daude⁹³, bai 6 hilabetera [36,25-100], bai 12 hilabetera [41,25-100] (13. taula). Hala ere, lorturiko emaitzak (13. taula) oso heterogeneoak dira, eta haien desberdintasuna, besteak beste, "efecto centro"^{35,88} izenekoarekin azal daiteke. Hau positiboa eta aipagarria iruditzen zaigu, ikerketan parte hartu duten zirujauen esperientzia dela eta.

6 hilabetera, bi tratamendu taldeen artean ez dugu diferentzia estadistikoki esanguratsurik lortu aldagai horri dagokionez (t= % 61,59 vs. k= % 61,73; p= >0,05), nahiz eta Kontrol Taldean tratatutako atzera-egiteen kokapena lagungarriagoa izan batez besteko estaldura handiagoa lortzeko.

Hala eta gutiz ere, 12 hilabetera, bai ikusi dugula Test Taldearen aldeko erro-estalduraren batez besteko ehunekoan ezberdintasunak (t= % 73,26 vs. k= % 56,49), Kontrol Taldean beharakada nabarmenarekin (-% 5,23) Test Taldearen gorakada baten (+% 8,85) aurrean. Dena den, nahiz eta bi tratamendu taldeen arteko diferentzia klinikoki esanguratsua ikusi dugun, hau ez zen balorazio estatistikoan islatu (p= 0,20).

Aurreko ikerketen⁹³ arabera, ebakuntza kirurgi-koaren ondorengo jarraipenean gutxienez urtebe-tera arte espero daiteke ehun bigunak heltzearen ondorioz erro-estaldura handitzea, "creeping attachment"¹⁵⁶ gisa ingelesez deskribatua eta izenda-tua izan den fenomeno. Hala ere, hori ez dator bat Kontrol Taldean ikusi dugunarekin, ezta aurreko argitalpenetan⁹³ eta 13. taulan jasotakoarekin ere. Egindako berrikusketan (13. taula) barneratutako ikerketen datuen analisiak adierazten digu erro-estalduraren batez besteko ehunekoak jaitsi egin zela 12 hilabetera, murrizketa % 76,02-tik % 73,27-rakoa izanik, eta 12 hilabetetik gorako erro-estaldura aztertu zenean, % 62,60-rainoko jaitsiera hauteman zen.

Horrela, Kontrol Taldean izandako EE %-aren murrizketa barneratutako pazienteen ezaugarriekin erlazionatuta egon liteke, plaka-kontrol okerragoa baitzuten, plaka-indize (t= % 15,86 vs. k= % 20,49) eta odoltze-indize (t= % 8,83 vs. k= % 12,71) handituarekin paziente hauetan eta tabako (t= 0 % vs. k= 25 %), drogak eta alkohol (t= 0 % vs. k= 33,30 %) kontsumo handiagoarekin.

Aldiz, Test Taldean EE %-an hautemandako igoe-rak, hasierako ezaugarri kaltegarriagoak aurkeztu arren, zintzilikario-EKM-papila konplexu guztiaren koroalderantzko trakzioarekin eta egonkortzearekin lotura izan lezake, ehun bigun marjinalen heltzeari denboran zehar fabore egingo liokeena.

Berrikusitako ikerketa gehienetan (13. taula), eta baita gurean ere, ez da tratatutako atzera-egite guztien erro-estaldura osoa lortu, beraz, baliteke beraren lortzea tratamenduaren helburu errealista ez izatea, behintzat Miller-en III. motako hortzoia-ren atzera-egiteetan. Hori dela eta, irizpide argiak definitu beharko lirakeke, horrelako hortzoia-ren atzera-egiteetarako prozedura hauetan arrakastaren definizioa zehazteko. Gainera, teknologia berriek⁶⁹ eremu baskularraren tamaina modu zehatzagoan, erreproduzigarriagoan eta konparagarrian denbo-ran zehar baloratzen lagun diezagukete.

Erabilitako teknika edozein dela ere, gure ikerketan ikusi dugu zenbait aldagai (hezur-maila erradiologi-koa, plaka-indizea, atzera-egitea eta ukipen-puntutik hortz-arteko papilarainoko distantzia), erro-estaldura handiagoa lortzearekin erlazionatuta egon daitezke-ela. Aitzitik, badirudi aldagai hauek pisu ezberdina

izan dezaketela erabilitako teknika mukogingiba-laren arabera, izan ere, KBZ teknika erabiltzean asoziazio positiboa ikusi zen erro-estalduraren batez besteko ehunekoaren eta ehun konektibozko men-tuaren zabalaren artean eta negatiboa plaka- eta odoltze-indizearekin, m-VISTA teknika egitearakoan, berriz, asoziazioa negatiboa izan zen hezur-maila erradiologikoarekin eta ukipen-puntutik hortz-arteko papilarainoko distantziarekin. Era berean, Aroca *et al.*-ek¹⁵⁷ tunel teknika aldatua (CAMT) erabiliz, ha-sierako ukipen-puntutik hortz-arteko papilarainoko ditantziari, zein hortzen posizioari (masailezu-rra edo baraila), Miller-en III. motako atzera-egite anizkoitzen tratamenduan erro-estaldura handiagoa lortzeko mendekotasun handiena egotzi zieten.

5.5. Lorturiko erro-estaldura osoaren batez besteko ehunekoari (EEO %) dagokionez

6 hilabetera, Kontrol Taldean EEO % handiagoa izan zen, bai pazienteen mailan (t= 1 paziente vs. k= 2 paziente, atzera-egite guztiak estalita; t= % 54,54 vs. k= % 58,33, atzera-egiteren bat EEO-rekin), bai lokalizazioen mailan (t= % 31,71 vs. k= % 36,67). Hala ere, 12 hilabeteren buruan kontrakoa gertatu zen, bai pazienteen mailan (t= 3 paziente vs. k= 1 paziente, atzera-egite guztiak estalita; t= % 60 vs. k= % 50, atzera-egiteren bat EEO-rekin), bai atzera-egiteen mailan (t= % 47,33 vs. k= % 29,45). Emaiza hauek gorabehera, ez ditugu diferentzia estatistikoki esanguratsurik ikusi bi taldeen artean. Nahiz eta interesgarria den pazientearen mailan EEO % ematea, baliteke estaldura balio horiek adie-razgarriak ez izatea. Aurretiko ikerketetan⁹³, alda-gai horri dagokionez islatzen diren datu gehienak hortzoia-ren atzera-egitearen mailakoak dira. Gure datuak mota honetako atzera-egiteetan dagoen ebi-dentzia txikiarekin konparatzean, EEO % atzera-egi-tearen mailan ezarritako heinaren barruan aurkitzen dela ikusi dugu, bai 6 hilabetera (% 52,34 [0-100]), bai 12 hilabetera (% 40,72 [0-100])⁹³ (13. taula). Bestalde, nabarmendu behar da gertakari poskirur-gikoak, batez besteko erro-estaldura hobea ez lor-tzea eragin zezaketenak, Kontrol Taldearen ohandze hartzailean soilik gertatu zirela, hala nola mentua-ren nekrosi partziala (zk.= 1) eta zintzilikarioaren nekrosi partziala (zk.= 1).

Aldagai honetan, aurrekoan bezala, ebidentziak EEO %-ren beherakada erakusten du denboran zehar, eta are gehiago, 12 hilabetetik gora hau jasotzen duten ikerketak ikusten badira (% 16,93 [0-50])⁹³ (13. taula). Pini-Prato *et al.*-en¹⁰⁷ ikerketan ikusi zen Miller-en III. motako 17 atzera-egiteetan hasieran EEO-a lortu ondoren, horietako batek ere ez zuen hura mantendu 20 urteko jarraipenaren ostean. Hori dela eta, iradoki da hainbat faktore, hala nola 2 mm-tik beherako hortzoi keratinizatu banda egotea, hortz-arteke ehun periodontalik ez egotea edo zahartze-prozesua bera, izan litezkeela emaitza honen erantzule¹⁰⁷. Egia esan, adinarekin, atzera-egite kopuruak gora egiteaz gain¹⁵⁸, atzera-egite horiek ere aurreratu egiten dira⁴³. Denborak berak, beste alderdi askok bezala, ertz-gingibalaren erpineranzko migrazioan eragingo luke, haien hasierako ezaugarrien mende egongo dena, berain tratamendua justifikatuta egongo litzateke atzera-egite horien aurrera egiteko arriskua minimizatu edo atzeratuko luketen baldintza mukogingibal horiek hobetzeko (hortzoi keratinizatua handitzea plaka-kontrol egokia ahalbidetzeko), eta, ondorioz, inguruko ehun txertatuen suntsipena. Nolanahi ere, epe luzerako ikerketa gehiago behar dira, adinari lotutako narriadura honetan¹⁰⁷, neurri handiagoan edo txikiagoan zein parametrok eragin lezaketen jakiteko. Alderdi hau kontuan hartu beharko litzateke kirurgia plastiko periodontaleko tratamendu mota hauek hasi aurretik, eta pazienteei jakinarazteko, errealitateaz bestelako itxaropenak ez sortzeko helburuarekin.

5.6. Gainerako parametro kliniko periodontaletan lortutako aldaketei dagokienez

Parametro mota hauek aurretik egindako ikerketen erdietan bakarrik jasotzen dira (zk.= 25 / 43) (14. taula). Miller-en III. motako edo RT2-ren atzera-egiteen tratamenduan kirurgia mukogingibal prozeduraren ondoren jasotako parametroak (ZS, IMK eta HKZ) 14. taulan azaltzen dira. Honek erakusten du aurreko azterlan gehienetan garrantzi gutxi eman zaiola parametro hauek biltzeari, erro-estaldura parametroen aurrean (14. taula). Hala ere, atzera-egite mota honen EEO altua lortzeko zailtasuna ikusita, osasun periodontalarekin lotutako beste parametro kliniko periodontal batzuk erregistratu eta

aztertu beharko lirateke kasu guztietan. Horrela uste dugu, etorkizunean zehaztu ahal izango litzateke, parametro periodontal hauen hobetze batek gure pazienteen osasun periodontalean eragingo luketen eta, beraz, prozedura terapeutikoaren arrakasta ezartzerako orduan irizpide garrantzitsuak izango liratekeen.

Zundaketa sakonerari dagokionez, gure ikerketan bi bisitetan aldaketa txiki bat erregistratu zen, 6 hilabetera (+0,08 mm) eta 12 hilabetera (+0,04 mm) kontrol taldean gora eginez (11. taula). Test Taldean, aldiz, bai 6 hilabetera (-0,04 mm) bai 12 hilabetera (-0,12 mm) parametro horren murriztapena erregistratu zen (11. taula). Balio hauek beste azterlanetan (14. taula) 6 hilabetera [-0,73-0,27 mm] eta 12 hilabetera [-3-0,5 mm] jasotakoan antzekoak dira.

Gauza bera gertatzen da intsertzio klinikoaren batez besteko mailarekin, non aurreko ebidentziak (14. taula) 6 hilabeteren buruan +3,54 mm-ko irabazia [0,42-7 mm], eta 12 hilabeteren buruan +3,78 mm-koa [1,64-7 mm] erakusten duen, gure datuak bi tratamenduentzako antzekoak izanik (11. taula). Aztertutako parametro periodontal guztien artean, hau da diferentzia estatistikoki esanguratsua erakutsi zuen parametro bakarra 12 hilabetera, Test Taldearen (2,43 mm) eta Kontrol Taldearen (3,47 mm) artean ($p=0,04$) (10. taula).

Hortzoi keratinizatuaren batez besteko zabaleraren irabazia 1 mm baino txikiagokoa izan zen erregistro guztietan, hau 6 hilabetera ($t=+0,85$ mm vs. $k=+0,68$ mm) eta 12 hilabetera ($t=+0,88$ mm vs. $k=+0,58$ mm) Test Taldean pixka bat handiagoa izanik (11. taula). Bi taldeetan, parametro hau aurreko egileek (14. taula) deskribatutako heinaren barruan bazegoen ere, irabazia bai 6 hilabetera (+3,56 mm [0,20-8]) bai 12 hilabetera (+2,10 mm [-0,32-5,71]) erakutsitako hortzoi keratinizatuaren batez besteko irabazia baino txikiagoa izan zen. Pini-Prato *et al.*-en¹⁰⁷ ikerketak soilik, atzera-egite mota hauetan jarraipenik handiena aurkezten zuenak (20 urte), parametro horren murriztapena erakutsi zuen. Hortzoi keratinizatuaren irabazia 12 hilabetera -0,32 mm-koa eta 20 urtera -0,77 mm-koa izan zen.

Aroca *et al.*-en⁷¹ entsegu klinikoan bakarrik atzera-egitearen batez besteko zabaleraren murrizketa jasotzen da, jarraipeneko bi bisitetan (6 eta 12 hilabete), 2,45 mm-ko murriztapena lortuz. Emaitza

hauek Test tratamendu Taldean 6 hilabetera (-2,17 mm) eta 12 hilabetera (-2,78 mm) lortutakoen antzekoak dira, eta Kontrol Taldean 6 hilabetera (-1,01 mm) eta 12 hilabetera (-1,26 mm) lortutakoak baino handiagoak (11. taula). Parametro honek lotura zuzena izan dezake hasierako atzera-egitearen batez besteko zabalerarekin, Test Taldean handiagoa izan zena (4,08 mm vs. 3,57 mm), baina diferentziak ez ziren estatistikoki esanguratsuak izan ($p=0,51$).

Aurreko eta tratamendu osteko, ukipen-puntutik hortz-arteko papilarainoko distantziari dagokionez, Aroca *et al.*-ek⁷¹ 6 hilabeteren buruan 1,15 mm-ko murrizketa erakutsi zuten, CAMT ("Coronally advanced Modified tunnel") teknikarekin 12 hilabetera egonkor mantendu zena. Era berean, gure ikerketan (11. taula) bi taldeetan 6 hilabetera murriztapen bat ikusi zen, 1 mm baino txikiagokoa izan zena ($t=-0,80$ mm vs. $k=-0,37$ mm), Test Taldean espero zitzekeen murrizketa estatistiko esanguratsu handiagoarekin, m-VISTA teknika kirurgikoaren bidez lortutako koroalderantzko mobilizazioari esker. Hala ere, Test Taldean murrizketa hau ez zen egonkor mantendu urtera, ia hasierako balioetara itzuliz. Hau gerta liteke, ehunen heldzearekin, hortz-arteko papilaren posizioa, berriz ere, ukipen-puntuaren eta azpiko hezur-gandor albeolarraren arteko distantziaren arabera litzatekeelako¹⁵⁹, EKM-ak lortutako papila postkirurgikoaren posizioa jasateko gai izan gabe, Aroca *et al.*-ek¹⁵⁷ deskribatutako hipotesiaren aurka.

5.7. Pazienteen esperientzia mingarriari dagokionez

Esan den bezala, garrantzitsua da edozein prozedura terapeutikori dagokion pazientearen pertzepzioa jasotzea, terapia mukogingibala barne. Pazienteek lorturiko emaitzei buruz izan dezaketen pertzepzioak, estetikoak izan, zein prozedura bera-rikiko erlazioatuak izan, edo posoperatorioaren interferentziak bere eguneroko jardunean, prozeduraren arrakastaren zati handi bat ez ezik⁷⁶, pazienteek antzemandako esperientziak berak ere eragina izan dezakeelarik etorkizun batean antzeko tratamenduak jasotzeko edo ez jasotzeko erabakian¹⁶⁰.

Min akutua kalte tisularrari eta hanturari lotutako prozesu biologiko bat da¹⁶¹, lehen 48 orduetan bere gorenera heltzen dena¹⁶², beraz, beraren azterketak, ebakuntzatik hurbileko analisi bat egitea eskatzen du. Ikerketa hauek hirugarren haginaren kirurgia prozeduretan egin dira, ospitale-giro batean, izan ere, ikertzaileei aukera ematen baitie pazientearengana erraz iristeko eta behar diren erregistro guztiak jasotzeko¹⁶³. Hala ere, kirurgia plastiko periodontalari buruzko literatura zientifikoa, ehun konektiboaren autologodun mentu bat barne hartuz, pazienteek esperimendatutako min poskirurgikoa tarte oso zabaletan erregistratu zen, jostura-puntuak kentzeko hitzorduekin eta ezarritako azterketekin bat etorri^{125,135,164-176}, eta ikerketa gehienetan ikuste eskala analogikoa (IEA)¹⁴⁵ erabiliz^{135,164,165,168-172,177-180} guk bezala. Azterlan gutxi jaso dute datu hau eguneroko^{178,180}, eta gaur egun arte bakar batek ere ez tratamenduaren osteko lehen orduetan min poskirurgikoa aztertzen duen minaren eguneroko batekin ("UPV/EHU pain diary"¹⁴).

Minaren egunerokoan pazienteek erregistratutako datuak aztertu ondoren, bai minaren intentsitatearen eta iraupenaren nahiz behar analgesiko denboraren batez bestekoari buruzkoak, ondoriozta lezakegu Test Taldean (m-VISTA) erabilitako teknika kirurgikoa prozedura mingarriagoa izan daitekeela Kontrol Taldean (KBZ) erabilitakoa baino. Hala ere, hau ez da ematen duen bezain sinplea, dakigunean esperientzia mingarrian, ekintza kirurgikoaz gain^{152,153}, beste faktore indibidual ugari ere eragin dezakeela¹⁶¹.

Gure ikerketan, Test Taldean lortutako mentuaren luzera Kontrol Taldearena baino handiagoa izan zen, minaren intentsitatearekin korrelazio lineal positiboarekin, eta erabilitako denbora kirurgikoa, m-VISTA teknikaren zailtasun handiagoa kontuan hartuta, handiagoa izan zela ere pentsa genezake. Hala eta guztiz ere, lehenago aipatutakoa kontuan hartu, arrisku hori larriagotu lezaketen arrisku-faktore guztiak kontsideratu eta erregistratu beharko lirateke, hala ebakuntzaren aurrekoak, nola parametro psikosozialak, asaldatutako minaren modulazioa, arrisku-faktore genetikoak, kokapen mingarri presentek, kimioterapia eta/edo erradiazioa eremu kirurgikoan, minaren beste nahasmen batzuk eta loaren nahasmenak¹⁸¹, hala nola konplikazio poskirurgiko mingarriaren bat agertzea, nahaste-faktore gisa desgertu ahal izateko.

Horrela, bai min poskirurgikoaren intentsitatea, bai sentsibilizazio zentraleko maila, handiagoak izan ziren Test Taldean Kontrolean baino. Nahiz eta ikerketan min akutuaren intentsitate handiagoa izateko joera dagoela ikusi dugun sentsibilizazio zentraleko maila kliniko handiagoa duten pazienteetan, baliteke estatistikoki erlazionatu ezin izana haren lagin txikia dela eta. Hala ere, ebakutzaren aurreko sentsibilizazio zentralaren maila¹⁸² ezagutzeak, sentsibilizazio zentraleko galdetegiaren¹⁴² bidez lortutakoak, sistema somatosensorialeko disfunzioa duten pazienteak^{183,184} eta diagnostikatutako min kronikoko patologiararen bat duten pazienteak¹⁸² kirurgiaren aurretik identifikatzen lagunduko liguke, min akutuaren intentsitate handiagoa izateko edo min kronikoaren koadro bat garatu ahal izateko faktore hartaratzaille gisa jardun zezaketenak¹⁶¹. Min prekirurgiko moderatutik larrirako presentziak eta min akutu poskirurgikotik, min kroniko poskirurgikoa garatzeko prediktore independenteak dira¹⁸⁵. Horregatik, nabarmendu behar da oso garrantzitsua dela min akutu poskirurgikoa behar bezala kontrolatzea, izan ere, hau morbiditate handiagoarekin, funtzionaltasunaren eta bizi-kalitatearen narriadurarekin, errekupeazio-denboraren atzerapenarekin, opioideen erabileraren iraupen luzearekin eta arreta medikoaren kostu handiagoarekin lotu ohi baita¹⁸⁶.

Era berean, nabarmendu behar da Test Taldean emakumeen kopurua handiagoa izan zela, min akutuaren intentsitate handiagoa izatearekin lotutako baldintza, bai eta aurpegiko min kronikorako aurre-disposizio handiagoa izatearekin ere, non hormonen konplexuak zerikusi izan lezakete¹⁶¹.

Aurretik aipatutako guztiagatik, badirudi gure ikerketan m-VISTA teknika jaso zuen laginak min poskirurgikoa izateko aurretiko joera handiagoa izan zezakeela Kontrol Taldearenak baino, Test Taldeko fibromialgia zuen emakumeetako batekin, batez bestekoa nabarmen handitzen zuena, horrela lortutako emaitzak azal litezkeelarik.

Gainera, gertakari poskirurgikoen prebalentzia berdina izan bazen ere kopuruan (zk.= 6), prozesu mingarritzat jotzen dena, hala nola ahoko aften agerpena (t; zk.= 2 vs. k; zk.= 1)¹⁸⁷, Test Taldeko paziente batean gehiago gertatu zen, horrek talde honetan minaren intentsitate eta iraupen handiagoa izatea eragin zezakeelarik.

5.8. Pazienteen balorazio estetikoari dagokionez

Bi prozeduretarako balorazio estetikoa altua eta antzekoa izan zen, % 80 inguruan bi taldeetan eta bilketa-denboretan. Balorazio hori laguntza publiko batetik (Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitate-ko Zerbitzu Klinika Odontologikoa) datorren biztanleria-segmentu oso zehatz bati dagoen gure laginak baldintzatuta egon liteke, seguruenik itxaropen estetiko txikiagoagatik.

ikerketaren mugak

1. Gure ikerketaren muga nagusia hasieran aurreikusitako lagin osoa lortzeko ezintasuna izan zen. Azkenik, guztira 24 paziente lortu genituen, 12 paziente taldeko, aurretik ezarritako lagin-tamaina baino txikiagoa. Ikerketa hau planteatu genuenean, lagin-tamainaren kalkulu bat egin zen, ondorio sendo eta esanguratsuak atera ahal izateko helburuarekin. Errealitate klinikoa guztiz ezberdina izan da, izan ere, ikerketarako hain zorrotzak diren hautaketa-irizpideekin, bi taldeetan atzera-egiteak antzeko baldintzetatik abiatzeko helburuarekin, ezin izan izan digu hasieran proposatutako lagin-tamaina lortu.
2. Ebakuntzak esperientzia mugatuko zirujauak egin zituzten. Tunel teknikak trebetasun kirurgiko handiagoa behar dutela, beraz, emaitzak egoera horren araberakoak izan daitezke. Hala ere, trebetasunak handitzen joan ziren pazienteak sekuentzialki tratatzen ziren heinean eta haien ikaskuntza-kurba handitzen zen heinean.
3. Ikerketaren epe laburreko jarraipenak (12 hila-bete) ez digu usten emaitzen egonkortasuna baloratzen. Ebakuntza jaso zuten pazienteak kontrolatzen jarraitzea beharrezkoa da, denboran nola eboluzionatzen duten ikusi ahal izateko.

ondorioak



1. Miller-en III. motako atzera-egite anizkoitzen tratamenduan lortutako batez besteko erro-estalduraren ehunekoa, 6 hilabetera, antzeko izan zen aztertutako bi tekniken erabilerarekin, aldiz, erro-estaldura osoaren ehunekoa zertxobait handiagoa izan zen KBZ teknikarekin. Hala ere, 12 hilabetera, m-VISTA teknikarekin, erro-estaldura hobe lortu zen, bai batez bestekoa, bai osoa.
2. Jasotako parametro kliniko periodontalak (intertzio-maila kliniko, atzera-egitearen zabale-
ra murriztea, hortzoi keratinizatuaren irabazia, ukipen-puntutik hortz-arteko papilarainoko distantzia murriztea, plaka- eta odol-tze-indizeak zundaketan), hobeak izan ziren m-VISTA teknikarekin operatutako pazienteetan KBZ teknikarekin operatutakoetan baino.
3. Gertakari poskirurgikoak urriak izan ziren bi azterketa-taldeetan.
4. Min poskirurgikoaren intentsitatea eta iraupena handiagokoak izan ziren m-VISTA teknikarekin ebakuntza jaso zuten pazienteetan, analgesia denboraren behar handiagoarekin, nahiz eta KBZ teknikarekin ebakuntza jaso zuten artean analgesiko kantitatea handiagoa izan zen.
5. Ikerketa honetan egindako "UPV/EHU pain diary" egunerokoa, min poskirurgikoaren alderdi ezberdinak jaso eta baloratzeko oso tresna lagungarria da. Dena den, komeni da haren erabilera minaren faktore hartaratzailerik edo irau-narazleen erregistro egokiek lotzea.
6. Pazienteek emaitza estetikoarekiko zuten gogobetetze-maila, bi teknikekin, bi ikerketa-taldeetan, altua izan zen, Test Taldearentzat pixka bat handiagoa izan zelarik. Honek iradokitzen du ezen, terapeutika honen arrakasta zehazterakoan, erro-estaldura osoaren ehunekoa ez litzatekeela baloratu beharreko datu bakartzat hartu behar, baizik eta beste parametro kliniko periodontal batzuk eta pazientearen kontsiderazioari lotutako horiek baloratu beharko lirateke, tratamenduen eraginkortasuna ezartzeko.
7. Emaitza hauek finkatzeko entsegu kliniko gehiago egin behar dira, lagin handiagoekin eta jarraipen luzeagoekin Miller-en III. motako atzera-egite anizkoitzen tratamenduan teknika muko-
gingibal ezberdinen diferentziak konparatu eta, horrela, kasu bakoitzean hautatu beharreko teknika definitu ahal izateko.

eranskina



8. I. eranskina: Aurrekarien taulak (1.-3. taulak)

Ikerketak	Lagina		Orokorra	Prebalentzia (%)			Gehien kalteturiko hortzak
	Pertsonak	Populazioa		(<30 urte)	(30-49 urte)	(≥ 50 urtea)	
Kitchin, 1941 ¹⁸⁸	200 (HAE ≥ 1 mm)	E.B	EI	84 (30-39) 96 (40-49)	94 (50-59)	L / goi 1° AH	
Ervin & Bucher, 1944 ¹⁸⁹	1252 (HAE ≥ 1 mm)	E.B	80,1	84,5 (30-39) 93 (40-49)	96,6	EI	
Gorman, 1967 ¹⁹⁰	164	E.B	EI	90 (26-35) 92 (36-45)	100 (46-86)	L / goi eta behe 1° AH	
Woofter, 1969 ¹⁹¹ (Berrikusketak)	EI	EI	EI	8 (umeak)	100	behe E / goi E, L eta AH	
O'Leary et al., 1971 ¹⁹²	164	E.B	EI	27,7 (17-22)		Atzeko-goi sektorea	
Sangnes & Gjermo, 1976 ²	533	Norvegia	51	(≥18)		1° AH	
Akpata & Jackson, 1979 ⁹³	820	Nigeria	EI	2,9 (15) 5,8 (19) 12,9 (20) 15,1 (21)		behe EB, AE eta L / goi 1° H	
Ainamo et al., 1986 ¹⁹⁴	299	Finlandia	37	5 (7) 39 (12) 74 (17)		L / goi 1° AH	
Baelum et al., 1986 ¹⁹⁵	170	Tanzania	90,7			EI	
Vehkalahti, 1989 ¹⁹⁶	258	Finlandia	68		90,7 (≥30)	behe	
Løe et al., 1992 ¹⁹⁷	565	Norvegia	EI	≥60 (20)	>90 (50)	EI	
	480	Sri Lanka	EI	≥30 (<20)		EI	
Serino et al., 1994 ¹⁹⁸	225	Suedia	25	7 (18-29)	40 (54-65)	Ma	
Albandar & Kingman, 1999 ⁹⁹	9689 (HAE ≥ 1 mm)	E.B	58	37,75 (30-39) 80,31 (60-69) 87,03 (70-79) 56,55 (40-49)	71,34 (50-59) 80,31 (60-69) 87,03 (70-79) 90,40 (80-90)	Ma; goi 1° H / behe EE	
Kassab & Cohen, 2003 ²⁰⁰	NI	E.B	50	50 (18-64) 88 (≥65)		Ma	
Marini et al., 2004 ²⁰¹	380	Brazil	89	64 (20-29)	98,8	behe EE / behe AH / goi 1° H	
Susin et al., 2004 ²⁰²	1460 (HAE > 1 mm)	Brazil	83,4	29,5 (14-19) 76,5 (20-29)	100	behe EE eta AE / goi 1° H / 2° behe AH	
Mathur et al., 2009 ¹⁸	1800	India	18	18 (10-15)		EI	
Toker & Ozdemir, 2009 ²⁰³	831	Turkia	78,2	(15-68)		EE, AE eta behe-eskuin L	
Matas et al., 2011 ²⁰⁴	40	Bartzelona	85	85 (22-34)		EE	
Manchala et al., 2012 ²⁰⁵	627 (HAE > 1 mm)	India	79,4	21,6 (16-25)	93,3 (46-55) 100 (>55)	behe E	
Minaya-Sánchez et al., 2012 ²⁰⁶	161	Mexiko	87,6	(>20)		EI	
Nguyen-Hieu et al., 2012 ²⁰⁷	120	Vietnam	72,5	72,5 (19-25)		goi: 1° H / 1° AH	
Chrysanthakopoulos, 2014 ²⁰⁸	1430	Grezia	63,9	63,9 (18-38)		behe	
Mythri et al., 2015 ¹⁵⁸	710	India	40,98	26,9 (15-25)	70,3 (45-60)	behe E	
Romandini et al., 2020 ¹⁹	10676	E.B	91,6	80,47 (30-34) 89,75 (35-49)	95,35 (50-64) 96,56 (y65)	AH / behe	

L: Letagina; AH: Aurreko lagina; H: Hagina; E: Ebakortza; EE: Erdiko ebakortza; AE: Alboko ebakortza; goi: goikoa; behe: behekoa; Ma: Masail-aldekoa; HAE: Hortzoien atzera-egitea; EI: Ez du informatzen

1. taula. Hortzoien atzera-egiteen prebalentzia.

1. Biotipo periodontala	<ul style="list-style-type: none"> a. Argal oxkarduna b. Lodi oxkarduna c. Lodi laua
2. Hortzoiaren / ehun bigunen atzera-egitea	<ul style="list-style-type: none"> a. Masail-aldeko eta mihi-aldeko gainazalak b. Hortz-artekoa (papila) c. Atzera-egitearen larritasuna (RT1, RT2, RT3) d. Hortzoiaren loditasuna e. Hortzoiaren zabalera f. Lepiko Lesio Ez kariogenikoen / sustrai karieen presentzia g. Pazientearen ardura estetikoa (Irribarrearen indize estetikoa) h. Hipersentikortasuna
3. Hortzoi keratinizatuaren gabezia	
4. Bestibuluaren sakontasun murriztua	
5. Gihar- / galgatxoaren kokapen aberrantea	
6. Hortzoiaren-gehiegikeria	<ul style="list-style-type: none"> a. Pseudopoltsak b. Hortzoiaren ertz ez-trinkoa c. Hortzoiaren bistaratze handiegia d. Hortzoiaren handiagotzea
7. Ez-ohiko kolorea	

2. taula. Hortzaren inguruko baldintza eta deformazio mukogingibalen sailkapena³⁶.

	Kokapen gingibala			Hortz-kokapena	
	HAE sakonera (mm)	Hortzoiaren lodiera (mm)	Ehun keratinizatuaren zabalera (mm)	IL (A/B)	Step (+/-)
HAE EZ					
RT1					
RT2					
RT3					

HAE: Hortzoiaren atzera-egitea; RT=Hortzoiaren atzera-egite mota, Cairoren sailkapenare arabera; IL: Idun-lerroa (A mota= IL detektagarria / B mota= IL ez-detektagarria); Step: Lepoko desnibela (+ mota= > 0,5 mm-ko lepoko desnibelaren presentzia / - mota = Lepoko desnibelik ez izatea).

3. taula. Biotipo eta hortzoiaren atzera-egitearen sailkapena³⁶.

eranskina



9. II. eranskina: Ikerketako berrikusketa sistematikoaren taulak (4., 5., 12.-14. taulak)

4. taula. Berrikusketa sistematikotik baztertutako ikerketak eta arrazoiak

Bazterte irizpideak	Kanporatutako ikerketak (zk.= 39)	
1. Ez dira III Mota edo RT2	4	Purushotham et al., 2016 ²¹⁰ ; Agarwal et al., 2014 ²¹¹ ; Bonacci, 2011 ²¹² ; Wilcko et al., 2005 ²¹³
2. Ez du III Mota edo RT2-rako bakarrik erro-estaldurari buruzko informazioarik ematen	16	Beitlitum et al., 2020 ²¹⁴ ; Górski et al., 2020 ²¹⁵ ; Lanzrein et al., 2020 ²¹⁶ ; Monika et al., 2020 ²¹⁷ ; Yoshino et al., 2020 ²¹⁸ ; Stähli et al., 2019 ²¹⁹ ; Deepa & Kumar, 2018 ²²⁰ ; Cheng et al., 2015 ²²¹ ; Pini-Prato et al., 2010 ²²² , 2015 ⁶⁵ ; Zucchelli et al., 2010 ¹⁵⁴ ; Jovicic et al., 2008 ²²³ ; Kerner et al., 2008 ²²⁴ ; Shin et al., 2007 ²²⁵ ; Lee et al., 2002 ²²⁶ ; Müller et al., 2000 ²²⁷
3. Erregistro-denboretatik kanpiko emaitzak	1	Gupta et al., 2011 ²²⁸
3. Ez du III Mota edo RT2-rako ebazpen mugogingibalik ematen	2	De Molon et al., 2012 ²²⁹ ; Zucchelli et al., 2012 ²⁰⁹
4. 6 hilabetetik beherako jarraipena	7	Al-Akhali, 2019 ²³⁰ ; Comuzzi et al., 2014 ²³¹ ; Ioannou et al., 2016 ²³² ; Kolhatkar et al., 2010 ²³³ ; Mahn, 2015 ²³⁴ ; McLeod et al., 2009 ²³⁵ ; Park, 2010 ²³⁶
5. Informazio osatu gabea	9	Ross & Ross, 2019 ²³⁷ ; Ogata et al., 2017 ²³⁸ ; Ercan et al., 2016 ²³⁹ ; Geisinger et al., 2016 ²⁴⁰ ; Panda et al., 2016 ²⁴¹ ; Allen & Winter, 2011 ²⁴² ; Kumari et al., 2010 ²⁴³ ; Ito et al., 2000 ²⁴⁴ ; Blanes & Allen, 1999 ²⁴⁵

4. taula. Berrikusketa sistematikotik baztertutako ikerketak eta arrazoiak.

Ikerketak (zk. = 43)	Ikerketa mota (Miller mota edo Cairo RT-a)	HAE Zk. III mota edo RT2	HAE kokapena	Jarraitapena (hilaurretan)	Teknika	Ohantze kirurgiko hartzailea Egilea	Mentu mota	EE	EEO
Kasu bat dela eta (zk. = 9)									
Gajendran & Parthasarathy, 2018 ⁹⁷	Bakarrik III, A	2	Bm 3.1 / 4.1	12	GUT†	Allen & Cohen (2003) ²⁴⁶	Mentu periositiko-pedikulatu + hezur autogenoa	✓	✓
Luthra et al., 2018 ⁹⁸	Bakarrik III, A	2	Gm 2.3 / 2.4	6 / 12	CAF‡	Allen (1988) ²⁴⁷	FGG	X	✓
Rath et al., 2018 ⁹⁹	Bakarrik III, U	1	Bm 4.1	6	FGG‡	Holbrook & Ochsenbein (1983) ²⁴⁸	FGG	✓	✓
Moussa & Bissada, 2017 ¹⁰⁰	Bakarrik III, A	6	Gm 1.5 / 1.3 / 1.2 / 1.1 Gm 2.4 / 2.6	12	TT†	Allen (2010) ¹⁵¹	ADM	✓	✓
Rath et al., 2016 ¹⁰¹	Bakarrik III, U	1	Bm 4.1	6	MCAF†	Zucchelli et al. (2009) ¹⁵²	SCGT	✓	✓
Zuchelli & De Sanctis, 2013 ¹⁰²	Bakarrik III, U	1	Bm 3.6	12 / 60	2SP / FGG / CAF†	Bermimoulin et al. (1975) ²⁴⁹	FGG / BB (BioMed®)	✓	✓
Cizza & Milgus, 2010 ¹⁰³	Bakarrik III, U	1	Gm 2.3	6 / 12	M2SP / FGG / LMCAF†	Zuchelli & De Sanctis (2013) ¹⁰²	FGG / EZ	✓	✓
Deliberador et al., 2010 ¹⁰⁴	Bakarrik III, U	1	Bm 3.1	12	DPG‡	Harris (1992) ²⁵⁰	SCGT	✓	✓
Ribeiro et al., 2008 ¹⁰⁵	Bakarrik III, U	1	Gm 2.4	36	LPF+TT†	Deliberador et al. (2010) ¹⁰⁴	SCGT	✓	✓
Ribeiro et al., 2008 ¹⁰⁵	Bakarrik III, U	1	Gm 2.4	36	TT†	Ribeiro et al. (2008) ¹⁰⁵	SCGT	✓	✓
Kasui-serieak (zk. = 19)									
Núñez et al., 2018 ¹⁰⁶	II eta III, U	7	Bm 3.1 / 4.1	12	25SA (Odontoplastia / TT)†	Núñez et al. (2018) ¹⁰⁶	SCGT	✓	✓
Pini-Prato et al., 2018 ¹⁰⁷	I eta III, U	25	Gm / Bm E, L eta AH	12 / 240	CAF‡	Allen & Miller (1989) ²⁵¹	No	✓	✓
Scullean & Allen, 2018 ¹⁰⁸	I, II eta III, U	10	Bm E, L eta L	12	LCT†	Scullean & Allen (2018) ¹⁰⁸	SCGT + EMD	X	✓
Garg et al., 2017 ¹⁰⁹	I eta III, A	9	GM E, L eta AH	6	VISTA†	Zadeh (2011) ¹⁵⁶	BB (PRF) / EZ	✓	✓
Romanos et al., 2017 ¹¹⁰	I eta III, A	48	Gm / Bm	12	MCAT†	Aroca et al. (2010) ⁷¹	ADM (Alloderm®)	✓	✓
Scullean et al., 2017 ¹¹¹	I eta III, U edo A	7	Gm	12	MCAT†	Aroca et al. (2010) ⁷¹	SCGT	✓	✓
Cosgarea et al., 2016 ¹¹²	I, II eta III, A	25	Gm / Bm E, L eta AH	12	MCAT†	Aroca et al. (2010) ⁷¹	ADM (Microderm®)	✓	✓
Nart & Valles, 2016 ⁹¹	I eta III, U	7	Bm E	20.53 (6.89)	TT†	Tozum & Dini (2003) ²⁵²	SCGT	✓	✓
Scullean et al., 2016 ⁹⁰	I, II eta III, A	5	Gm	12	MCAT†	Aroca et al. (2010) ⁷¹	SCGT + EMD	X	✓
Yaman et al., 2015 ¹¹³	Bakarrik III, A	68	Gm / Bm	12	MCAT†	Aroca et al. (2010) ⁷¹	SCGT	✓	✓
Lee et al., 2014 ¹¹⁴	Bakarrik III, U	2	Bm 4.3	6 / 36	MLPF†	Lee et al. (2014) ¹¹⁴	SCGT	✓	✓
Schlee et al., 2014 ¹¹⁵	I, II eta III, A	13	Gm / Bm	12	CAF‡	Zuchelli & De Sanctis (2000) ¹²	XCM (Micrograft®)	✓	X
Carney et al., 2012 ¹¹⁶	I, II eta III, U edo A / Aho etena	8	Gm / Bm	6	CAF‡	Zuchelli & De Sanctis (2000) ¹²	ADM (Puros Dermis®) +/- rHPDGF (GEN21S0®)	✓	X
Nart et al., 2012 ¹¹⁷	II eta III, U edo A	7	Bm E	11,70 (6.21)	CAF‡	Zuchelli & De Sanctis (2000) ¹²	SCGT	✓	✓
Remya et al., 2008 ¹¹⁸	Bakarrik III, U edo BI	12	El	12	FGG‡	Holbrook & Ochsenbein (1983) ²⁴⁸	FGG	✓	X
Sato et al., 2006 ¹¹⁹	Bakarrik III, A	4	Bm EE	12 / 24	PCTG†	Ito et al. (2000) ²⁴⁴	SCGT + EMD	✓	✓
Carnio et al., 2002 ¹²⁰	II eta III, U	2	Gm / Bm 1.3 / 2.3	6 / 12	DPG‡	Nelson (1987) ²⁵³	SCGT	✓	✓
Boitchi et al., 2000 ¹²¹	I, II eta III, U eta A	14	El	6	CAF‡	Allen (1988) ²⁴⁷	BB (Guidor®)	X	✓
Jepsen et al., 2000 ¹²²	I, II eta III, U	8	Gm / Bm 1.3 / 2.3 / 3.3	12	CAF‡	Allen (1988) ²⁴⁷	BB (Atrisorb®)	✓	✓
Éntsegu klinikoak (zk. = 11)									
Karavathy et al., 2020 ¹²³	Bakarrik III, U	21	Gm / Bm E eta L eremu edentularen ondoan	6	LPF† / OPF‡	Greenberg et al. (1976) ^{246 / 247} Smukler & Goldman (1979) ²⁵⁵	Ez / hezur albeolara	✓	X
Panweh et al., 2020 ¹²⁴	I eta III, A	19	Bm E eta L	6	MCAT†	Zuhr et al. (2007) ¹⁵⁰	SCGT +/- rHPDGF-BB	✓	✓
Mercado et al., 2020 ¹²⁵	III eta IV, A	127	Bm E eta L	36	CAF†	Mercado et al. (2020) ¹²⁵	SCGT +/- EMD	✓	✓
Ucak et al., 2017 ¹²⁶	Bakarrik III, U	50	Gm / Bm E eta L	6	LMCAF†	Zucchelli et al. (2004) ⁷³	Ez	✓	✓
Ozcelik et al., 2015 ⁸⁴	I, II eta III, U	30	Gm / Bm E eta L	6	MLPF†	Chambre & Chambrone (2009) ¹⁸	El	✓	✓
Ozcelik et al., 2015b ^{127 (RT2)}	RT1 eta RT2, U	62	Gm / Bm E eta L	6	CAF‡	Allen & Miller (1989) ²⁵¹	SCGT	✓	✓
Cairo et al., 2012 ^{129 (RT2)}	Bakarrik RT2, U	29	Gm E, L eta AH	6	CAF‡	Allen & Miller (1989) ²⁵¹	SCGT / Ez	✓	✓
Aroca et al., 2010 ⁷¹	Bakarrik III, A	139	Gm / Bm	6 / 12	MCAT†	Aroca et al. (2010) ⁷¹	SCGT +/- EMD	✓	✓
Barker et al., 2010 ⁸⁶	I, II eta III, U edo A / Aho etena	8	Gm / Bm E, L eta AH	6	CAF‡	Zuchelli & De Sanctis (2000) ¹²	ADM (Alloderm®) / Puros Dermis®	✓	X
Henriques et al., 2010 ⁸⁴	Bakarrik III, U edo A / Aho etena	30	Gm L eta AH	6 / 12	CAF‡	Allen & Miller (1989) ²⁵¹ (U) / Zuchelli & De Sanctis (2000) ¹² (A)	SCGT +/- EMD	✓	X
Cueva et al., 2004 ⁸⁶	I, II eta III, U edo A	7	Gm / Bm E, L eta AH	6	CAF‡	Allen & Miller (1989) ²⁵¹	EMD / Ez	X	✓
Atzerabegiko ikerketak (zk. = 4)									
César-Neto et al., 2019 ¹²⁸	II eta III, U	3	Gm / Bm E, L eta AH	6	CAF‡	Langer & Langer (1985) ²⁵⁶	SCGT	✓	✓
Gil et al., 2018 ²²⁹	I eta III, A	54	Gm / Bm	≥ 12 (14,6 (%6))	DPG / LPF‡	Harris (1992) ²⁵⁰ / Grube & Warren (1956) ²⁵⁷	SCGT / ADM (Perioderm®) / XCM (Mucograft®) + rHPDGF (GEN21S0®)	✓	✓
Chao, 2012 ¹³⁰	I, II eta III, U edo A	36	Gm / Bm	15 (5.2)	PST†	Chao (2012) ¹³⁰	BB (Bio-Gide®) / ADM (Alloderm®)	✓	✓
Estelbar et al., 2011 ⁸⁷	Bakarrik III, U edo A	121	Gm / Bm	12	FGG‡	Holbrook & Ochsenbein (1983) ²⁴⁸	FGG	✓	✓
					CAF‡	Langer & Langer (1985) ²⁵⁶	SCGT		
					DPG‡	Harris (1992) ²⁵⁰			

HAE: Hartzaren atzera-egita; U: Unitarioa; A: Anizkoitza; Gm: Goko masaluzura; Bm: Behelko masaluzura; E: Ebakortzak; EE: Erdiko ebakortzak; L: Letaginak; AH: Aurreko haginak; El: Ez du informazioa; I: XXI. mendeko teknika; ±: XXI. mendeko teknika; GUT: Gingiba-unitatearen transferentzia; CAF: Aurreko koronaleko zintzilikario; FGG: Gingiba-mentu libre; TT: Tunel-teknika; MCAF: Aurreko koronaleko zintzilikario aldatua; 2SP: 2 etapa prozedura; 25SA: Hurbilketarako aldatua; 25P: 2 etapa koronaleko zintzilikario aldatua; LPF: Alboko zintzilikario bikoitza; LPF: Alboko zintzilikario bikoitza; LCT: Tunel larrikari bikoitza; VISTA: Ebaki bikoitza; MCAF: Aurreko koronaleko zintzilikario aldatua; MLPF: Alboko zintzilikario aldatua; PCTG: Ehun konektibo-mentu periositiko; PST: Pihole teknika kirurgikoa; ADM: Matritze dermiko azelularra; XCM: Kolageno matritze xenogenikoa; SCGT: Ehun konektibo-mentu subepiteliala; BB: Mintz birurgaria; EMD: Esmaltetik deribatutako matritze; PRF: Plaketetan aberatsa den fibrina; rHPDGF: Plaketetik eratorritako hantzutza-faktoreak

5. taula. III. motako edo RT2ko hortziaren atzera-egileen tratamenduan erro-estaldura (EEO) jasozten duten ikerketen ezagueriak.

	XXI. mende aurrekoak	XXI. mendeak
		Tözüm & Dini (2003) ²⁵²
		Zuhr <i>et al.</i> (2007) ¹⁵⁰ (MCAT)
		Ribeiro <i>et al.</i> (2008) ¹⁰⁵
		Allen (2010) ¹⁵¹
		Aroca <i>et al.</i> (2010) ⁷¹ (MCAT)
		Zadeh (2011) ¹³⁶ (VISTA)
		Chao (2012) ¹³⁰ (PST)
		Sculean & Allen (2018) ¹⁰⁸ (LCT)
		Zucchelli <i>et al.</i> (2009) ¹⁵² (KBZ-a)
		Mercado <i>et al.</i> (2020) ¹²⁵
Tunel-teknika (TT)		
	Langer & Langer (1985) ²⁵⁶	
	Allen (1988) ²⁴⁷	
	Allen & Miller (1989) ²⁵¹	
	Ito <i>et al.</i> (2000) ²⁴⁴ (PCTG)	
	Zucchelli & De Sanctis (2000) ¹²	
	Holbrook & Ochsenbein (1983) ²⁴⁸	Allen & Cohen (2003) ²⁴⁶ (GUT)
Koroalderantz birjarritako zintzilikarioa (KBZ)		
	Grube & Warren (1956) ²⁵⁷ (LPF)	Zucchelli <i>et al.</i> (2004) ⁷³ (KBZAM)
	Greenberg <i>et al.</i> (1976) ²⁵⁴ (LPF)	
	Smukler & Goldman (1979) ²⁵⁵ (OPF)	Chambrone & Chambrone (2009) ⁷⁸ (MLPF)
	Nelson (1987) ²⁵³ (DPG)	Deiberador <i>et al.</i> (2010) ¹⁰⁴ (LPF + TT)
	Harris (1992) ²⁵⁰ (DPG)	Lee <i>et al.</i> (2014) ¹¹⁴ (MLPF)
	Bernimoulin <i>et al.</i> (1975) ²⁴⁹ (GML + KBZ)	Zucchelli & De Sanctis (2013) ¹⁰² (2PE aldatua: GML + KBZAM)
Biratutako teknika (BT)		
		Núñez <i>et al.</i> (2018) ¹⁰⁶ (2SSA: Odontoplastia / TT: Allen (1994) ²⁵⁸)
Prozedurak 2-etapetan (2PE)		

MCAT: Tunel aldatua koronalki desplazatua; VISTA: Ebaki bestibularragatik sarbideko tunel periostikoa; PST: Pinhole teknika kirurgikoa; LCT: Tunel lateralki itxia; PCTG: Ehun konektibo-mentu periostikoa; KBZ-a: Koroalderantz birjarritako zintzilikario aldatua; GUT: Gingiba-unitatearen transferentzia; LPF: Alboko zintzilikarioa; OPF: Alboko zintzilikarioa; DPG: Zintzilikario pedikulatu bikoitza; KBZAM: Koroalderantz birjarritako zintzilikarioa albotik mugitua; MLPF: Alboko zintzilikario aldatua; 2SSA: Hurbilketa kirurgikoa 2 etapatan

12. **taula.** III. motako edo RT2-ko hortzoaren atzeragaitzen tratamenduan erabiltako kirurgia plastikoa periodontaleko teknikak.

III Motako edo RT2-ko ikerketak (zk.= 43)	HAE				EEO				HAE b0				EE			
	zk.	6 H		H	zk.	12 H		H	(mm)	6 H		%	12 H		%	>12 H
		zk.	%			zk.	%			mm	%		mm	%		
Kasu bat dela eta (zk.= 9)																
Gajendran & Parthasarathy, 2018 ⁹⁷ †	2		100		2		100		3,50				100			
Luthra et al., 2018 ⁹⁸ †	2	2	100	2	2	100	2			7	100					
Rath et al., 2018 ⁹⁹ †	1	1	100													
Moussa & Bissada, 2017 ¹⁰⁰ †	6		66,67		4		66,67						87,50			
Rath et al., 2016 ¹⁰¹ †	1	0	0		0	0	0			7	87,50					
Zuchelli & De Sanctis, 2013 ¹⁰² †	1	0	0	0	0	0	0	60					4	66,67	4	66,67
Citza & Miguels, 2010 ¹⁰³ †	1	0	0	0	0	0	0			7	71,43		3,50	50		
Deliberador et al., 2010 ¹⁰⁴ †	1	0	0	0	0	0	0			7			4	57,14		
Ribeiro et al., 2008 ¹⁰⁵ †	1				0	0	0	36		4					2,50	62,50
Kasu-serieak (zk.= 19)																
Múñez et al., 2018 ¹⁰⁶ †	7		28,50		2		28,50		6,07				4,64	76,28		
	8				3	12		0					1,60	59,70	1,46	54,48
Pini-Prato et al., 2018 ¹⁰⁷ †	17				0	0	0	240							1,32	49,25
	17				0	0	0	240							0,95	35,45
	17				0	0	0	240							0,82	30,60
Sculean & Allen, 2018 ¹⁰⁸ †	10		60		6		60									
Garg et al., 2017 ¹⁰⁹ †	9	2	40		6		60									
Romanos et al., 2017 ¹¹⁰ †	48		35,40		17		35,40									
Sculean et al., 2017 ¹¹¹ †	7		85,70		6		85,70									
Cosgares et al., 2016 ¹¹² †	25		36		9		36									
Nart & Valles, 2016 ¹¹³ †	7		20		1		20		4,57				3,36	74,49		
Sculean et al., 2016 ¹¹⁴ †	5		50		1		50									
Yaman et al., 2015 ¹¹⁵ †	68		50		34		50		2,23				1,76	78		
Lee et al., 2014 ¹¹⁶ †	1	0	0		0	0	0	36		9	78		7	78		
	1	0	0		0	0	0	36		8	94		7,50	94		
Schlee et al., 2014 ¹¹⁷ †	13															
Carmey et al., 2012 ¹¹⁸ †	8		42,85		3		42,85									
Nart et al., 2012 ¹¹⁹ †	7		74,20													
Remya et al., 2008 ¹¹⁴ †	12		100		2		100		5,14	4,29	86,41		1,67	41,25		
	12		100		2		100		4	1,42	36,25		1,67	41,25		
Sato et al., 2006 ¹¹⁹ †	2		50		1		50		3,5				3,50	100		
	2		50		1		50		3,5				3,50	100		
	2		50		1		50		3,5				3,50	100		
Carnio et al., 2002 ¹²⁰ †	1	0	0		0	0	0			6	50		4	66		
	1	0	0		0	0	0			3	50		4	66		
Boitchi et al., 2000 ¹²¹ †	14	7	50													
Jepsen et al., 2000 ¹²² †	8		0		0	0	0									
Entsegu klinikoak (zk.= 11)																
Chakravathy et al., 2020 ¹²³ †	21		26,32		5		26,32		4,60	3,59	78		1,90	65,35		
Mercado et al., 2020 ¹²⁴ †	127		19	18	26	20,47	19	14,96	5,61	4,10	94,47		4,23	75,25	3,91	69,87
	127		19	18	26	20,47	19	14,96	5,61	4,10	94,47		4,23	75,25	3,91	69,87
Ucak et al., 2017 ¹²⁴ †	50	40	80		30	13,30	4	13,30	6,20	6,20	73,20					
Ozcelik et al., 2015 ¹²⁴ †	30	4	13,30		4	13,30	4	13,30	6,20	6,20	73,20					
Ozcelik et al., 2015 ¹²⁷ † (RT2)	62	46	74,20		6	5,70	95,10		6	5,70	95,10					
Cairo et al., 2012 ¹²⁵ † (RT2)	29	12	42,86		2,75	2,30	83,64		2,75	2,30	83,64					
Aroca et al., 2010 ¹¹ †	139 (40 paz)		11,51		16 paz		11,51		3,35	2,75	82,09		2,65	79,10		
Barker et al., 2010 ¹²⁵ †	8								3,39	1,93	56,78		2,13	62,83		
Herniques et al., 2010 ¹²⁶ †	30								3,39	1,93	56,78		2,13	62,83		
Cueva et al., 2004 ¹²⁷ †	7	3	42,86													
Atzerabegiko ikerketak (zk.= 4)																
Cézar-Neto et al., 2019 ¹²⁸ †	7	1	14,29		12	22,20			6,23	4,65	74,64		2,10	84,30		
Gil et al., 2018 ¹²⁹ †	54								2,50							
Chao, 2012 ¹³⁰ †	36				15	41,70	15	41,70	3,6				2,70	75,50		15
Estelbar et al., 2011 ¹³¹ †	121		71,07		86	71,07										

†: XX. mendeiko teknika; ‡: XXI. mende aurreko teknika; HAE: Hortziaren atzera-egiteak; B0: bisita basala; H: Hiliabeteak; paz: paziente; EI: Ez du informatzen

13. taula. III. motako edo RT2-ko hortziaren atzera-egiteen tratamenduan lortutako erroresaldura (EE) eta erroresaldura osoa (EEO).

III Motako edo RT2-ko ikerketak (zk.= 43)	HAE b0 (mm)	ZS b0 (mm)		ZS aldaketa (mm)		IMK aldaketa (mm) (- irabazia)		HKZ b0 (mm)		HKZ aldaketa (mm)	
		6 H	12 H	6 H	12 H	6 H	12 H	6 H	12 H	6 H	12 H
Kasu bat dela eta (zk.= 9)											
Gajendran & Parthasarathy, 2018 ^{11†}	3.50	2	-1		-5.5		1.50				+1.50
Luthra et al., 2018 ^{11†}											
Rath et al., 2018 ^{12‡}	7	2	0				1				+7
Moussa & Bissada, 2017 ^{10‡}	4	1.13					2.50				+0.50
Rath et al., 2016 ^{10‡}	8						1				+8
Zuchelli & De Sanctis, 2013 ^{10‡}	6	4	-3 (60 H)		-7	-7 (60 H)	0				+3 (60 H)
Citza & Miguels, 2010 ^{10‡}	7	2	0		-3.50		0.50				+4
Deilbrador et al., 2010 ^{10‡}	7	1	-0.50		-4.50						
Ribeiro et al., 2008 ^{10‡}	4										
Kasu-serieak (zk.= 19)											
Núñez et al., 2018 ^{10‡}	6.07	1.29	-0.15		-4.64		0				+5.71
Pini-Prato et al., 2018 ^{10‡}	2.68	1.12	-0.04		-1.64	-0.94 (240 H)	3.40				-0.32
Sculean & Allen, 2018 ^{10‡}											
Garg et al., 2017 ^{10‡}	2.80	3.48	-1.73		-3.45						
Romanos et al., 2017 ^{11‡}											
Sculean et al., 2017 ^{11‡}											
Cogarea et al., 2016 ^{11‡}											
Nart & Valles, 2016 ^{11‡}	4.57	1.14									
Sculean et al., 2016 ^{11‡}											
Yaman et al., 2015 ^{11‡}	2.23										
Lee et al., 2014 ^{11‡}	8.50										
Schlee et al., 2014 ^{11‡}											
Carmey et al., 2012 ^{11‡}	5.14	1.71	-0.71		-5.01		0				+3
Nart et al., 2012 ^{11‡}	4	1.75	-0.42		-1.83						
Remya et al., 2008 ^{11‡}	3.50	1	+0.50	EI	-3	EI	0.75				+1.25
Saito et al., 2006 ^{11‡}	3.50	1.50	EI	+0.50 (24 H)	EI	-2.50 (24 H)	0.25				EI
Carnio et al., 2002 ^{12‡}	6	1	0	EI	-3	EI	1				EI
Jeppsen et al., 2000 ^{12‡}	6	2	EI	-4	EI	-4	0				+5
Entsegu klinikoak (zk.= 11)											
Boitchi et al., 2000 ^{12‡}	5.40	2.30	-0.66		-4.49		1.94				+2.69
Jepson et al., 2000 ^{12‡}	4.60	1.05	-0.44				2.09				
Chakravarthy et al., 2020 ^{12‡}					-4.69						+1.62
Parween et al., 2020 ^{12‡}											
Mercado et al., 2020 ^{12‡}	5.61	1.12	+0.18	+0.21 (24 H) +0.20 (36 H)	-4.05	-3.71 (24 H) -3.43 (36 H)	1.61				+1.72
Ucak et al., 2017 ^{12‡}	4.34	1.68	+0.08		-4.02		0.68				+4.12
Ozcelik et al., 2015 ^{12‡}	6.20	1.33	0.27		-0.42		0				+4.47
Ozcelik et al., 2015b ^{12‡} (RT2)	6	1.60	-0.10		-5.90		1.80				+5.70
Cairo et al., 2012 ^{12‡} (RT2)	2.75	1.40	0		-2.15		2.70				+0.65
Aroca et al., 2010 ^{12‡}	3.35	1.45	-0.30		-3	-2.85	2.55				+0.10
Bariker et al., 2010 ^{12‡}											
Henriques et al., 2010 ^{12‡}	3.85	1.86	-0.13		-2.05		3.10				+0.72
Cueva et al., 2004 ^{12‡}											
Atzerabegiko ikerketak (zk.= 4)											
Cázar-Neto et al., 2019 ^{12‡}	6.23						0.17				+3.23
Gil et al., 2018 ^{12‡}	2.50	2.10	-0.10		-2.10		1.80				+0.50
Chao, 2012 ^{12‡}	3.60	2.40	-1.10 (15 H)		-3.80 (15 H)		0				+2.50 (15 H)
Estelbar et al., 2011 ^{12‡}											

I: XX. mendeko teknika; †: XXI. mende aurreko teknika; HAE: Hortziaren atzere-egiteak; ZS: Zundaketa sakonera; IMK: Intertzio-maila klinikoak; HKZ: Hortzoi keratinizatuaren zabalera; b0: bisita basala; H: Hiliabeteak; paz: pazienteak; EI: Ez du informaltzen

14. taula. III. motako edo RT2ko hortziaren atzere-egiteen tratamenduan lortutako parametro kliniko periodontalak.

eranskina



10. III. eranskina: Ikerketaren emaitzen taulak (6.-11. taulak)

Pazienteak	Sexua	Adina (urteak)	Tabako-ohitura			Drogak/ alkohola	Gaixotasun sistemikoak	Medikazioa	SZMK ^{1,42}	Min pre-kirurgikoa (IEA) ^{1,43}	
			Mota	Zig/egun	Urteak					Azken hilabetea	Berehalakoa
Testa (zk.= 12)											
1	E	57	EO	0	8	Ez	Fibromialgia / Migraina	Zitaloprama / Lorazepam	Mod	60	30
2	E	42	EE	0	0	Ez	Hiperkolesterolemia/ Artrisia	Ez	Azpk	50	0
3	G	57	EE	0	0	Ez	Ez	Ez	Azpk	0	0
